



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko irailaren 22a

62 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Mozioa, Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruzko galdera, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (5. or.).
- Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (6. or.).
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina (6. or.).
- Ibai-arroen Planaren jardueri buruzko galdera, M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Sai arrearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Atzerrian diren Nafarroako Zentroi dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
- Harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea “Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun” deklaratzeari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

- Nafarroako Industri Ingurugiroko Sozietate Publikoko gerentea izendatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
- Europako Batasunak “Clara Programa”ri ematen dion babes ekonomikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- “Clara Programa” gure Komunitatean garatzean Nafarroako Gobernuak duen partehartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 29330-0 “Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Disinua) FEDER programa” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 29600-8 “Kanpo sustapeneko ekintzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 98020-0 “Azpiegiturako inbertsioak, FEDER programako industriak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- “Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak” izeneko aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 30400-0 “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Tutera eta Nafarroako mugaren tartean, Tarazonako norabidean, N-121 errepidea hobetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Toki entitateekiko euskararen normalkuntzarako hitzarmen berriuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Beste elkarte batzuetako pertsonen arreta egiteko Insaludekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Olagueko saihesbidea eraikitzekeo proiektuaren ingurugiro-eraginaren gaineko azterketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean izandako elkarriketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- “Cobra 97” izeneko ariketa militarrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Judeu buruzko Tuterako Jardunaldiak egitearen gaineko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatiari dagokion kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 31160-0 “Azterlanak eta proiektuak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 99008-7 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazi asmorik gabeko entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 31180-5 “Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 99005-2 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 31210-0 “El Vergel egoitzako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren zati bati buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- “Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Bizidun arrainak beitatat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Altzania ibaian arrain askoren heriotzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

---

**E Saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Mozioa, Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko**

### *«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatutakoaren babesean, Osoko Bilkuraren aurrean iza-pida dadin honako mozio hau aurkezten du:

Urtarrilean eta batez ere abuztuan izandako ekaitz eta ur jasa handien ondorioz, azken hilabete hauetan, udalerrri batek baino gehiagok kalte handiak izan ditu azpiegitura publikoetan –nekazari-tzako bideak, ur bilguneak, erretenak, ezpondak eta abar–, batez ere ur-etorri handiek azpiegitura horiek hartu eta erreketako ibilguak gaintuz lur-jauziak eta hausturak sortu dituztelako. Ukitutako-ek egoera horren berri eman diote Foru Diputazio-ari, batzuek banaka eta beste batzuek taldeka.

Azken hori da Aberin, Añorbe, Artaxona, Zirauki, Lerín, Mañeru, Mendigorria, Morentin, Oteitza, Gares eta Villatuertako alkateen kasua. Alkate horiek, abuztuaren 12an, eranskinean jarri den idazki zabal bat igorri zuten, ekaitzek sortutako kalteak azaldu ondoren, ondokoa azaltzen zuena:

“Eskura dauden neurrien zerrenda zabalak Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentu bat baino gehiago ukitzen du eta aspektu asko hartzen ditu; hain zuzen ere, batzuek zergazorren murrizketa eskatzen dute, beste batzuek, –esate baterako, kreditu pribilegiatuak ematea hori eskatzen duten udalei eta banakakoei– normaltasuna lortzeko laguntza bilatzen dute. Horregatik guztiagatik zuregana jotzen dugu zuzenean eta era koordinatuan presako izaeraz eskatzen diren bereoneratzeko jarduerak bultza ditzazun”. Ondoren, zenbait eskaera egiten ziren.

Dirudienez aipatu dirulaguntzak eskatu zituzten udaletako batzuk Toki Administrazioako Departamentuaren erantzuna jasotzen hasi dira. Erantzun horretan jakinarazten zaie idazkiaren (alegia, laguntzak eskatzen dituen udalaren idazkia) eranskinean aipatzen diren kalteak ez direla inolaz ere Departamentuak kudeatzen dituen aurrekontu-lerroen kargura finantzatu daitezkeen kontzeptuak.

Ikusirik, gainera, beste Departamentu batzuetatik ahoz emandako beste erantzun batzuek adierazten dutela aurrekontu-krediturik ez dagoela eskaera mota horietarako, derrigorrezkoa da aparteko kreditu bat onesteari ekitea, presako izaeraz. Kreditu horren justifikazioa izanen litzateke gaurko lerroekin ezin lagunduko ziren aparteko kalteak suertatu direla udal azpiegitura haietan. Beste aurrekontu ekitaldi batzuetan era horretako laguntzak onetsi dira; beraz, uste dugu oraingoan ere antzeko erantzuna eman beharko litzatekeela, bide, ezponda, ibai, erreten eta abarretan izan diren kalteak oso ugariak izan direlako, hain zuzen ere.

Honengatik guztiarengatik,

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak honako erabaki hau hartzea proposatzen du:

**Bakarra:** Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioari eskatzen dio gertatutako kalteak ebalua ditzala, zertarako eta ukitutako enteekin ados jarri ondoren, nekazaritza-lurretako azpiegitura (bideak, ezpondak, erretenak, finketako sarbideak...), ibai eta erreketan aurtengo urtarrileko eta abuztu-ko ekaitzen ondorioz izan diren kalteak konpon-tzearen Nafarroako zenbait udalek egin duten eskaerei erantzuteko, eta igor dezala 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko dirulaguntza eta laguntzetarako Aparteko Kreditu bat arautuko

duen Lege Proiektu bat, Parlamentu honek onets dezan, baldin eta planteatutako laguntza eskaerez arduratu ahal izateko diru nahikorik ez balego edo horretarako aurrekontu-lerrorik ez balitz.

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean.

Bozeramalea: Adolfo Araiz Flamarique.

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

---

**F Sails:**  
**GALDERAK**

---

**Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruzko galdera***ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Isabel Arboniés Bermejo Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Joan den uztailaren 31n Nafarroako Ongizate Institutuak iragarri zuen abian jarriko zuela Larrialdietarako Telefono Zerbitzua, gaitasunen murrizketaren bat duten 65 urtetik gorako pertsonentzat.

Zerbitzu horrek bi modalitate ditu. Alde batetik SOS Nafarroan kokatuta dagoen alarmak jasotzeko unitate zentralaren bidez erantzungo diren larrialdi-deiak daude, eta bestetik Erabiltzailearen Arazoetarako Unitatearen edo adeitasun zerbitzuaren bidez erantzungo direnak. Azken horrek mediku-zitak, botikak eta abar gogoraziko dizkie edadetuei, eta informazioa bilduko du.

Zerbitzu publiko honek Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza du, eta haren logotipoa agertzen da triptikoan.

Ordaindu beharreko tarifa 1000 pezetakoa da hilabeteko eta erabiltzaileko, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik (LGS) gorako dirusarrerak dituztenentzat. Dena den, Nafarroako Aurrezki Kutxako Club Edad de Oroko bezeroek Zerbitzu Bereziko Tarifa dute. Horretarako Club Edad de Oroko txartelaren egiaztatzea eskatzen zaie.

Galdera:

Nafarroako Aurrezki Kutxak Erabiltzailearen Arazoetarako Unitatearen ardura zuzenean hartu behar al du, edo beste enpresaren batek hartuko du ardura hori?

Zer ordutegi izanen du Erabiltzailearen Arazoetarako Unitateak? Zein informazio mota jaso behar du? Nola erabiliko da informazio hori eta nola babestuko da?

Ezintasuna duen jende multzo batentzako zerbitzu publikoa izaki, nola konpentsatu behar ditu Nafarroako Ongizate Institutuak NAKko Club Edad de Oroko bezeroei eskainitako Zerbitzu Bereziko Tarifaren eta Klubeko bezero ez diren gainerako erabiltzaileentzako tarifaren arteko aldea, izan ere azken horiek ez badute beherapen berezirik?

Iruñean, 1997ko irailaren 9an

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

## Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruzko galdera

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendariz Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du.

Joan den otsailean Leipzigko Azoka egin zen. Foru Komunitateak parte hartu zuen azoka hartan, gonbidatu bezala, Nafarroako Gobernuak finantzatu zuen erakundeetako pabilioi bat jarrita. Azoka horretan Nafarroako 38 enpresak hartu zuten parte, eta Gobernuko nahiz Parlamentuko ordezkariak zabala izan zen.

Nafarroako Gobernuko Lehendakariak berak azoka horrek Nafarroako ekonomiaren etorkizunarako zuen garrantzia azpimarratu zuen, eta adie-

razi horren zalantzarik ez legokeela egon behar ikusirik zeinen zabala izan zen Nafarroako erakundeetako ordezkariak, eta era berean esan zuen Nafarroak Leipzigen izanen zuen tokia lehenbiziko pausua izanen zela Nafarroako aurreapenaren eta modernitatearen onerako diren enpresa- proiektuetan ados jarri eta lankidetzan aritzeko bidean.

Azoka hura egin zenetik zazpi hilabete igaro direlarik, jakin nahi genuke:

- Zein izan zen Nafarroako Gobernuak ordaindu zuen diru-kostua Leipzigko azokan parte hartzeagatik, beti ere gastu-kapitulua zahaztuz (bidai gastuak, egoitzak, dietak, publizitatea eta abar)?

- Leipzigko Azokara joan ziren Nafarroako enpresen zerrenda.

- Zein izan zen Leipzigko Azokako Nafarroako Pabilioian metro karratuaren diru-kostua? Zein da Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen antzeko azoketako pabilioi eta standetako metro karratuaren batezbesteko kostua?

- Zein izan da Nafarroko enpresentzat Leipzigko Azokan partehartzearen errentagarritasuna (kostua-onura)?

Iruñean, 1997ko irailaren 9an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendariz.

## Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruzko galdera

*M<sup>a</sup> ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

María Rosario Villanueva Iturralde Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Nafarroako Gobernuaren 1996ko azaroaren 18ko erabakiaren bidez altxatu zen Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanpostu oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia onesten zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko

zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 19ko 632/95 ebazpena burutzeko etendura.

Horren aurrean, jakin nahi da:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanpostuak Nafarroako Gobernuaren enplegu eskaintza publikoan agertzen al ziren?

2. Zein izan ziren Osasun Kontseilariak azaldu zituen arrazoiak maiatzaren 19ko 632/95 Ebazpenaren etendura altxatzea erabakitzeko?

3. Ebazpen hori, oposizio-lehiaketaren zein fasetan dago une honetan?

4. Zenbat izangai onartu ziren? Horietatik zenbat aurkeztu ziren lehenbiziko azterketara? Horietatik zenbatek gainditu zuten proba hori? Zenbat aurkeztu ziren eta zenbatek gainditu zituzten 2, 3, 4 eta 5. probak?

5. Gainditu zutenen zerrenda izenduna eskatzen da, hasi lehenbiziko probatik eta azkenera artekoa.

Iruñean, 1997ko irailaren 6an

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde

## Ibai-arroen Planaren jardueri buruzko galdera

*M<sup>a</sup> ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Ibai-arroen Planaren jardueri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteuguía

### GALDERAREN EDUKIA

María Rosario Villanueva Iturralde Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Ingurugiro Zuzendari Nagusiak komunikabideei adierazi zien Nafarroako Gobernuak ibai-arroei buruzko plan bat burutzeko asmoa zuela, ibaiertzak sendotzeko eta ibilguak dragatzeko, uholdeek sortutako kalteak ahal dela arintzearen.

Horren aurrean, jakin nahi da:

1. Ingurugiro Departamentua hasia al da garbiketa lanak egiten zenbait ibaitako arroetan? Hala bada, zein ibaitan, noiztik eta zein lan burutzen ari da?

2. Zein da Nafarroako Gobernuak ibai-arroei buruzko plana egiteko bere buruari jarri dion egutegia?

3. Plan horrek zein jarduera-multzo hartuko du?

4. Datozen urteetako aurrekontuetan plan hori burutzeko zein aurreikuspen jarriko dira aurrekontuetan?

5. 1997. urteko uholdeek sortu dituzten arazo puntualei konponbidea emateko, zein jarduera burutu ditu Ingurugiro Departamentuak? Jarduera horiek zenbateko gastua ekarri dute, herriz herri zehaztuta?

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde.



## Sai arrearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruzko galdera

*MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak sai arrearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáun Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Ingurugiro Kontseilariak joan den maiatzaren 9an iragarri zuen abian jarriko zuela sai arrearen

jokaerari buruzko ikerlan bat, CSICen menpeko den Doñanako Biologi Estazioak proposatutako planari jarraituz. Ikerlanaren bidez, ahaleginak eginen ziren saien balizko jokaera harrapariaren ezohiko maiztasuna eta erasoaren maiztasuna sortzen dituzten arazoak zehazteko, eta metodo eraginkor zenbait proposatuko ziren aipatu jokaerari amaiera emateko. Horren aurrean, jakin nahi da:

1. Abian jarri al da Ingurugiro Kontseilariak iragarritako plan handinahi hura, alegia, animalia biziei eginiko erasoengatiko salaketak ikusita saien jokaeretan gertatutako balizko aldaketa horiek aztertzeke plana?

2. Harremanik izan al du batere Ingurugiro Departamentuak proiektua egin duten eta proiektu hori burutu behar zuten CSICeko biologoekin?

3. Jardueraren bat burutu al da gai honen inguruan?, nork egin du?, zein aurrekontu jarri da horretarako?

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

## Atzerrian diren Nafarroako Zentroi dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzko galdera

*PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak atzerrian diren Nafarroako Zentroi dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Pedro Uriz Lanz Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

1997ko abuztuaren 11ko NAOn Espainiaz kanpoko Nafarroako Zentroi dirulaguntzak ematea arautzen duen Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren apirilaren 14ko 42/1997 Foru Agindua argitaratu zen. Agindu horren 5. oinarrian xedatzen da dirulaguntza horiek jaso nahi dituzten entitateek eskaera bat aurkeztu behar dutela 1997ko ekainaren 1a baino lehen, burutuko duten jardura edo lana eta haren aurrekontua azalduz. Horren aurrean, jakin nahi da:

1. Zer dela eta argitaratu da abuztuaren 11n apirilaren 14ko agindu bat, hau da lau hilabeteko atzerapenarekin?

2. Zein dira zentro nafarrek dirulaguntza horiek jasotzeko duten aukera, baldin eta epea ekainaren 1ean bukatu bazen, hau da, NAOn agindua argitara eman baino bi hilabete lehenago?

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz.



## Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruzko galdera

JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Javier Arteaga Olleta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Dirudenez Europako Batzordeak Espainiaren aurka jardun lezake, Gobernuak autobideetako

bidesarrietan aplikatzen den BEZaren bederatzi puntuko jaitsiera dekretatzen badu. Europako Komunitateko zenbait iturriren arabera, bidesariak ehuneko 16tik 7ra jaisteko neurri hori 1997ko Europako Batasuneko Seigarren Zuzentarauaren aurkakoa izanen litzateke. Arau horrek xedatzen du BEZaren tipo murriztua zuzentarauaren eranskinean azaltzen den erabilera arrunteko gaien zerrenda luze bateko produktuei aplikatzen ahal zaiela soilik, eta zerrenda horretan ez direla azaltzen autobideetako bidesariak. Horren aurrean, jakin nahi genuke:

1. Nafarroako Gobernua harremanetan jarri al da Estatuko Gobernuarekin BEZa Nafarroako autobideetan jaisteko?

2. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak aipatu zuzentaraua existitzen den?

3. Nafarroako Gobernuak erabakiren bat hartu al du Nafarroako autobideetan BEZa jaisteko?

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Javier Arteaga Olleta

## Harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea “Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun” deklaratzeari buruzko galdera

GREGORIO MARTINEZ EZCARAY FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea “Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun” deklaratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Gregorio Martínez Ezcaray Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Komunikabideetan azaldutakoaren arabera, Vianako Printzea Erakudea hasia da kudeaketa

batzuk egiten Unescok Iruñeko harresiek, Gogorlekua eta San Cristóbal forteak osatzen duten gotorlekuen multzoa Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun deklaratu dezan, historiaren eta arkitekturaren aldetik daukan baliogatik. Horren aurrean, jakin nahi da:

1. Zer nolako konpromisoak hartzen ditu Nafarroako Gobernuak deklarazio hori dela eta?

2. Zer nolako inbertsioak egin behar ditu Nafarroako Gobernuak etorkizunean gizon-emakume guztien ondare izanen den hori egoera onean gordetzeko?

3. Zer nolako eginbeharrak izanen ditu Iruñeko Udalak deklarazio hori egiten bada?

4. Iruñeko Udalak ondare horretan egin behar dituen inbertsioak bere aurrekontutik egin behar al ditu, edo beste erakunde batzuetako laguntza ekonomikoak izanen ditu? Halakorik bada, zein dira laguntza horiek?

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean.

Foru Parlamentaria: Gregorio Martínez Ezcaray

## Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Luis Gerardo López Eslava Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamen-

duko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

Nafarroako Gobernuak Nafarroaren standak prestatzen ari da Lisboan eginen den Expo-98rako. Horren aurrean jakin nahi da:

1. Nolakoa izanen da eta zein eduki izanen du Lisboarako prestatzen ari den standak?

2. Zein da Nafarroako Gobernuak Expo-98ko bere ordezkari zarako aurreikusitako duen aurrekontua?

3. Zein dira proiektuaren erantzuleak?

4. Zein enpresa edo enpresarien elkartetara jo du Nafarroako Gobernuak Nafarroako pabilioian

parte hartzeko?, horietatik zeintzuk hartuko dute parte?, zein baldintzatan?.

5. Zein talde artistikotara jo du Nafarroako Gobernuak Nafarroako pabilioian parte hartzeko?,

horietatik zeintzuk hartuko dute parte?, zein baldintzatan?.

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

## Ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco Izquierda Unida-Ezker

Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Aspaldian planteatu zen ospitaleetan kogenerazio sistemak ezartzeko interesa.

Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi genuke:

1. Zein diren kogenerazio sistemak ezarrita dituzten Nafarroako ospitaleak eta lortutako emaitzak, halakorik balitz.

Iruñean, 1997ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## Nafarroako Industri Ingurugiroko Sozietate Publikoko gerentea izendatzeari buruzko galdera

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Industri Ingurugiroko Sozietate Publikoko gerentea izendatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Komunikabideei esker, berriki jakin dugu Jesús Aldariz Martín jauna izendatu dela Nafarroako Industri Ingurugiroko Sozietate Publikoko gerente. Sozietate hori hondakin bereziak kudeatzeaz arduratzen da

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Hautapen prozesurik izan ote den horretarako, eta hala bada, nolakoa izan den.

2. Zein izan diren Nafarroaz kanpoko pertsona hori kontratatzeko arrazoiak, eta zein bide erabili den azkenean kontratatu den pertsonarekin harremanetan jartzeko.

3. Uste al du Gobernuak ez zegoela pertsona egokirik Ingurugiro Departamentuaren barrenean, edo bestelakoak izan ote dira kontratazio hori erabakitzeke arrazoiak? Hala bada, zein arrazoi dira horiek?

Iruñean, 1997ko irailaren 12an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## Europako Batasunak “Clara Programa”ri ematen dion babes ekonomikoari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Europako Batasunak “Clara Programa”ri ematen dion babes ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, Europako Batasunak Clara Programari ematen dion babes ekonomikoari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak laguntza administratibo eta politikoa ematen dio Clara programari, eta jakina da ikus-entzunezko komunikabideetan eta prentsan eman dion babesa.

Kalitatezko behikia defendatzen duten izendapen, label eta abarren kontroletako kostuak ordaintzeko dirulaguntzei buruzko Errege Dekretua, idazteko eta onesteko prozesuan dago. Haien artean daude Clara programak babesten dituenak.

2. Kalitatezko haragia, naturala eta gehigarririk gabea sustatzeko ahalegin guztiek Nafarroako

Gobernuaren laguntza instituzionala dute, baina ekarpen ekonomikoa eta sustapena Nafarroako Aratxea Izendapenarentzat dira, hain zuzen ere arestian azaldu ezaugarriak biltzeaz gainera, gure Foru Komunitatean jaio eta hezitako aratxeen haragia laguntzearen abantaila ere baduelako.

3. 203,9 Tm egiten dute Nafarroan, Clara programaren barrenean, 1996an sakrifikatu diren behiek, eta aurtengo apirilaren 30era arte hartuta, 356,2 Tm dira. Foru Komunitatearen programan sartzen diren azienda aleak 6.444 dira, 31 ustiategitan.

Nafarroako handizkariak 12 dira; haragi hori saltzen duten harategiak, berriz, 76 dira.

4. Nafarroako Aratxea izendapenetik heldu den informazioaren arabera, inoiz ere ez dira bi izendapenak aldi berean erabiltzen, ez abeltzainen artean, ez harategietan.

5. Clara programaren kalitate-kontrola egiteko enkargua duen Bureau Veritas Español S.A. enpresaren proposamenaren arabera, printzipioz eta programa abian jarri zenetik, adostasun-zurtagiria 1997ko urtarriletik abendura bitartean lortuko dela aurreikusi da. Gero, jatorriko marrazgarritasuna, lagin motak eta abar egiaztatzeke kontrol-proposamenak egiten dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko ekainaren 3an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

## “Clara Programa” gure Komunitatean garatzean Nafarroako Gobernuak duen partehartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Clara Programa” gure Komunitatean garatzean Nafarroako Gobernuak duen partehartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, Clara Programa gure Komunitatean garatzean Nafarroako Gobernuak duen partehartzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Nafarroako Gobernuak ez du inongo hitzarmenik izenpetu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin Clara Programa sustatzeko.

2. Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ardura hartu nuenetik, ez da jakin inongo lan-talderik eratu denik Clara Programa abian jartzeko.

3. Nafarroako Gobernuaren politika da Nafarroako Aratxea Izendapena laguntzea, Foru Komunitatean jaio eta hezitako behien haragiaren kalitatea bermatzen duelako. Kalitatezko haragiaren sustapena intereseko kontua den arren, izendapen, label, kontramarka eta abarren eskaintza

bat baino gehiago izatea nahasgarria da, zalantzarik gabe, eta kalte egiten dio Nafarroako Aratxea Izendapenari.

4. Kontuan hartu behar da Clara programa mugimendu pribatua dela, eta aurreikusten den araupetze bakarra haren kideen animalien haragiari buruzkoa dela.

Estatutuetan aipatzen dituzten kontrolek, zalantzarik ez dago, berme gehigarri bat erantsiko diete Hondakinen Planean aurreikusitako hondakinen gaineko kontrolei, eta horrekin laginen aukera zabalduko da. Dena den, ez dira osasun kontrol gehiago eginen kanalaren eta hiltegiko haragiaren gainean, Estatutuetan ez baita horrelakorik agertzen. Bikoiztasuna gerta daiteke Hondakinen Planari dagokionez, azken horrek izaera ofiziala duelako, eta dituen balditzetako bat delako kontrola jasan behar duenarentzat aleatorioa eta jakingabekoa izatea.

5. Argi dago nahasgarria izan daitekeela, baina kontrolak Izendapenak egiten ditu eta Nafarroako Aratxea Izendapenean bildutako haragia harategietan eta ez beste inon saltzeak, produktu horren kalitate eta garantiari dagokienean, ospe handia eman dio eroslearen aurrean.

6. Aurretik informatu dugun bezala, kontramarka, logotipo eta abar gehiegi izatea kaltegarria da, eta nahasmena eta eszeptizismo handia sortzen ditu eroslearengan.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko ekainaren 3an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro

## 29330-0 “Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Disinua) FEDER programa” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 29330-0 “Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Disinua) FEDER programa” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak 29330-0 Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Diseinua) FEDER programa kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren inguruan, Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 29330-0 lerroa, Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak (Kalitatea Diseinua) FEDER programa?

ENPRESA	ORDAINDUTAKOA
CONSERVAS ARTESANAS ROSARA, S.L.	400.000
TRW-DIRECCIONES DE VEHÍCULOS, S.A.	710.692
ASPACE C.E.E.	400.000
LAZARO TABERNA, S.A.	375.000
MOVINORD, S.A.	3.500.000
EQUISALUD, S.L.	625.000
GUZTIRA	6.010.692

2. Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

ENPRESA	KONPROMISOA
ALAMBRES PAMPLONA S.L.	680.000
ALBIA GAS Y AGUA S.L.	160.000
AÑURI S.A.	1.675.000
ARTICULOS FERRETERIA S.A.	376.125

ARTICULOS FERRETERIA S.A.	255.375
ASOCIACIÓN DE ALIMENTOS	
ARTESANOS DE NAVARRA	1.406.500
AUXILIAR DE LA CONSTRUCCION S.L.	223.750
AUXILIARES DE GALVANOTECNIA S.L.	1.848.000
AZKOYEN HOSTELERIA SA	2.046.250
AZKOYEN INDUSTRIAL SA	1.568.750
AZKOYEN INDUSTRIAL SA	1.132.500
BACAICOA OROZ DANIEL Y JESUS SRC	68.750
BARON DE LEY SA	340.359
BELISA S.A.	200.000
BEPLAST S.A.	1.745.000
BILDU LAN SCI	1.050.000
BOBINADOS OSES, S.L.	600.000
BODEGA DE SARRIA S.A.	950.000
BODEGAS IRACHE S.A.	1.120.000
CALTU, S.L.	950.000
CALTU, S.L.	862.500
COMERCIAL EUROPEA DE PORCELANAS, S.A.	1.749.187
COMPUESTOS Y GRANZAS SA	294.000
CONSERVAS ALLO S.L.	300.000
CONSERVAS ANKO S.L.	228.000
CONSERVAS BARCOS S.A.	500.000
CONSTRUCCIONES ABAIGAR S.A.	1.150.000
CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI, S.L.	460.625
CONSTRUCCIONES METALICAS COMANSA SA	255.000
CONSTRUCCIONES SAMANIEGO S.L.	2.050.675
DEFONTAINE IBERICA SA	505.625
DELPHI UNICABLES S.A.	1.800.000
EGACOO, S. COOP.	128.666
EGOKI SL	522.500
EGUIPLAS S.L.	1.700.000
ELECTRIFICACIONES SAN CRISTOBAL S.L.	1.485.000
ELECTRONICA FALCON S.A.	420.000
EMBALAJES CLAVIJO S.L.	1.950.000
EMBEGA S.C.I	708.750
EMBEGA S.C.I	140.000
EMBEGA S.C.I	289.126
EMBUTIDOS GOIKOA, S.A.	1.480.000
ENVASADOS EVA S.A.	2.175.000



ESCALERAS ARIZONA S.L.	1.275.000	JEALSER SA	720.000
EURO ESTAMPACIONES, S.A.	399.808	KOBOL SA	738.500
EUROVIDRIO SAL	600.000	KUZU S.L.	761.600
EXTINIRUÑA S.L.	640.000	LACTEOS SARALEGUI S.L.	1.440.000
FORJAS DE NAVARRA S.L.	1.447.767	LYS ALIMENTACION, S.A.	1.850.000
FORJAS DE VIANA SA	2.001.880	LYS ALIMENTACION, S.A.	498.750
FRENOS IRUÑA SAL	1.992.500	MAIER-MGI COUTIER NAVARRA S.L.	866.250
FRENOS IRUÑA SAL	2.250.000	MANUFACTURAS NICOLAS S.A.	993.750
FRENOS IRUÑA SAL	832.500	MANUFACTURAS NICOLAS S.A.	1.068.750
GARAU MAS MALVIDO S.L.	407.817	MATERIAL DE INSTALACION EUNEA S.A.	1.625.000
GRAFICAS ESTELLA SA	650.000	MECANIZADOS INDUSTRIA AUXILIAR SA	1.587.500
GRAFICAS ESTELLA SA	1.800.000	MELTON SL	175.000
GRAFICAS ESTELLA SA	420.000	METALURGICAS ARAQUIL S.L.	593.750
GRAFICAS LIZARRA S.L.	2.770.700	METALURGICAS ARAQUIL S.L.	631.250
HARINERA VASCO NAVARRA S.A.	951.000	MOLDURAS MUEBLES SALVADOR	
HUICI LEIDAN S.A.	969.600	MARTINEZ S.A.	818.750
ICER MATERIALES DE FRICCION S.A.	1.000.000	MOLDURAS MUEBLES SALVADOR	
ICER MATERIALES DE FRICCION S.A.	148.464	MARTINEZ S.A.	880.000
ICER MATERIALES DE FRICCION S.A.	1.275.000	O.S. FRENOS S.L.	480.000
IGARTEX SAL	575.000	OCHOA LACAR HERMANOS S.L.	1.303.200
INDUSTRIA NAVARRA DE CABLES		OLLOQUI MAZO S.L.	720.000
ELECTRICOS S.A.	505.000	P.R.A.O.M.S.A.	591.875
INDUSTRIA NAVARRA DE CABLES		P.R.A.O.M.S.A.	591.875
ELECTRICOS S.A.	1.241.500	PERFILES NAVARRA SA	1.560.000
INDUSTRIA NAVARRA DE		PIENSOS UNZUE SA	970.500
GALVANOTECNIA S.L.	605.000	PRECOMAR S.L.	800.000
INDUSTRIA NAVARRA DEL ALUMINIO SA	2.613.075	PROCESO DE PLASTICOS INTEGRADO SA	1.680.000
INDUSTRIAS ABRASIVAS LEY S.L.	525.000	PROCESOS LASER AUXILIARES DE	
INDUSTRIAS ADI S.A.	640.000	NAVARRA S.L	510.000
INDUSTRIAS ALIMENTARIAS DE		PROCESOS LASER AUXILIARES DE	
NAVARRA S.A.	1.812.000	NAVARRA S.L	680.000
INDUSTRIAS ALIMENTARIAS DE		PRODUCTOS KOL S.L.(SANGÜESA)	700.000
NAVARRA S.A.	1.650.000	PSI-TELECOMUNICATIONS S.A.	492.750
INDUSTRIAS ALIMENTARIAS DE		SAGARTE S.A.	333.750
NAVARRA S.A.	650.000	SAGARTE S.A.	381.250
INDUSTRIAS AUTOPLAS SA	160.000	SAGARTE S.A.	247.500
INDUSTRIAS AUTOPLAS SA	500.000	SAKANA S. COOP.	500.000
INDUSTRIAS BARDI SAL	1.024.000	SALVAPLAS RIOJA S.L.	445.000
INDUSTRIAS BARGA S.L.	480.000	SCHADE AUTOMOCION, S.A.	625.000
INDUSTRIAS CARNICAS NAVARRAS SA	675.000	SERIGRAFIA REDIN S.A.	710.000
INDUSTRIAS CARSAL SA	1.500.000	SOLES SYSTEM SA	750.000
INDUSTRIAS DEL RECAMBIO S.L.	1.000.000	TABLEROS GARFER S.A.	838.750
INDUSTRIAS ESTEBAN S.A.	1.912.500	TALLERES ATONDOA S.L.	600.000
INDUSTRIAS METALICAS TERU SA	2.653.500	TALLERES ROIRI, S.L.	750.000
INDUSTRIAS PEVI S.A.	1.226.450	TECNOCONFORT SA	401.800
INDUSTRIAS SAN ANDRES SA	923.000	TELEMECANICA S.A.	1.187.500
INDUSTRIAS SAN ANDRES SA	300.000	TERMOCLECTRICIDAD BEROTZA, S.L.	2.750.000
INDUSTRIAS Y ABONOS DE NAVARRA, S.A.	600.000	UCAR HERMANOS S.A.	812.500
INDUSTRIAS Y ABONOS DE NAVARRA, S.A.	355.000		



URISO S.L.	949.000	Aurrekontua, erabilitako fondoak eta konprometitutakoa alde batera utzita.
VEGOPLAS S.L.	1.700.000	
VIDECART SA	1.925.000	152.000.000 - 6.010.692 - 129.451.424 = 16.537.884 pta.
WISCO ESPAÑOLA SA	750.000	
WISCO ESPAÑOLA SA	956.250	
GUZTIRA	129.451.424	

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30ean

3. Zenbat erabili daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## 29600-8 “Kanpo sustapeneko ekintzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 29600-8 “Kanpo sustapeneko ekintzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

29600-8 Kanpo sustapeneko ekintzak kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat jaunak honako erantzun hau bidaltzen du:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 29600-8 lerroa, Kanpo Sustapen ekintzak?

82110/4810/7621 (29600-8 lerroa) aurrekontu-kontusailak 300 milioi pezetako kopurua dauka esleitu. Gaurdaino, ez da inolako kopururik erabili lerro honen kontura, bertako fondoak osoki Nafarroako Enpresa Nazioarteratzeko Programa finantzatzerat bideratzen baitira, eta programa honek ezarrita dauzkan laguntza-eskaerarako epeak oraindik ez baitira amaitu (eskaerak aurkezteko azken eguna maiatzaren 30a da).

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aipaturiko kontusailetik hitzartuak izan diren fondoak 208.490.000 pezetakoak dira. Gai honi dagokionez, aipatu beharra dago 1997ko apirilaren 16ko Foru Aginduaren bidez Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak aurrekontu-aldaketa bat baimendu zuela, honetan zetzana: Kanpo Sustapeneko Ekintzak lerroari 8.490.000 pezeta gehitzea, Kanpo Merkataritzaren Sorkuntza kontusailaren kargura, kanpo-sustapeneko ekintzekin zerikusia duten beste hainbat kontzepturi aurre egiteko: adibidez, Negozio Sustatzaileak eta Exportazio-gintzan Hasteko Programa (D.E.I. eta C.I.E.X.).

Nafarroako Gobernuak, 1997ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Gobernuaren eta Merkataritza eta Industriarako Nafarroako Ganbararen arteko Lankidetzak Akordioa onartzen zuen Erabakia hartu zuen, besteren artean. Erabaki horretako hirugarren puntuan hainbat aurrekontu-kontusailen kargura 235.690.000 pezetako gastu bat onartu zen, Nafarroako Enpresa Nazioarteratzeko 1997ko Planeko ekintzak burutzeko. Kontusail horien artean 29600-8 zenbakiduna dago, 208.490.000 pezetarainoko kopurua duena. Lankidetzak Akordioa 1997ko maiatzaren 5ean sinatu zen Ganbararekin.

3.- Zenbat erabil daiteke aipaturiko aurrekontu-kontusailean?

Galdera honen arretagai den aurrekontu-kontusailetik erabil daitekeena esleituriko kopuru osoaren (300 milioi pezeta) eta dagoeneko hitzarturiko fondoan (208.490.000 pezeta) arteko kenketaren emaitza da, alegia, 91.510.000 pezeta.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## 98020-0 “Azpiegitureako inbertsioak, FEDER programako industriak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 98020-0 “Azpiegitureako inbertsioak, FEDER programako industriak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

98020-0 Azpiegitureako inbertsioak, FEDER programako industriak kontusailaren aurrekontu betetzeari buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, eskatutako informazioa bidaltzen dio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat jaunak.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

10. Programa	Azpiegitura eta Energia	1997rako Aurrekontua			
10001. Proiektua	Industria Lurzoruaren Sustapenak				
81130-6015-5351 Kontusaila	98020-0 Lerroa				
Inbertsioak Industria Azpiegituretan. FEDER Programa (2. helburua))					
Hasierako aurrekontua		300.300.000			
Finkaturiko aurrekontua		300.300.000			
Kontzeptua		Data	Hitzarturikoa	Erabilgarria	1998rako konpromisoa
Lekunberriko industrialdearen 2. Fasearen proiektua (plan partziala eta hiri plana) idaztea	Foru Agindua	14.03.97	14.749.125	285.550.875	
Irurtzango industrialdearen proiektua (plan partziala eta hiri plana) idaztea	Gobernuaren Erabakia	07.10.96	16.500.000	269.050.875	4.000.000
Alkaiagako industrialdea urbanizatze lanak (96ko aurrekontua bete ez izanagatik egiteke)	Foru Agindua	10.12.96	10.090.234	258.960.641	
Alkaiagako industrialderako laguntza teknikoa (96ko aurrekontua bete ez izanagatik egiteke)	Foru Agindua	10.12.96	340.675	258.619.966	
1. Eskualdea zabaltzeko Proiektuak (Plan Sektoriala eta Hiri Plana aldatzea)	Gobernuaren Erabakia	07.10.96	21.500.000	237.119.966	
2. Eskualdeko industrialdearen Proiektuak (Sektoriala eta Lanak)	Gobernuaren Erabakia	07.10.96	28.000.000	209.119.966	12.000.000
Urdiain-Atlsasuko industrialdearen Proiektuak (Sektoriala eta Lanak)	Gobernuaren Erabakia	07.10.96	28.000.000	181.119.966	
Iruñako Eskualdeko Azalera Haundien Altxaketa Topografikoa	322 Ebazpena	08.04.97	3.694.600	177.425.366	
Askotarikoak - Kartografia	Facturak		295.800	177.129.566	
Guztira			123.170.434	177.129.566	16.000.000

## “Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak” izeneko aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa gastuak” izeneko aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa-gastuak izena eta 00580-1 lerro-zenbakia dituen aurrekontu-kontusailaren kontabilitate-egoerari buruz Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parla-

mentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak egindako galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Zein da (erantzuna ematen den egunean) aipaturiko kontusailaren kontabilitate-egoera, alegia, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko 00580-1 lerroarena?

Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholkuemailearen jarduketa-gastuak izeneko kontusailari Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko 25321-0 lerro-zenbakia dagokio, eta 1997ko ekainaren 2an 3.671.457 pezetako saldoa dauka.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 3a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## 30400-0 “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 30400-0 “Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Aurrekontuetan aurreikusitako enplegu-arloko gastuei buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat Jaunak honako erantzun hau bidaltzen du:

1. eta 2.- Gaurdaino, Lan Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenen bidez hitzarturiko kopuruak erakunde berberaren Ebazpenen bidez ordainduak izan direnez gero, egoki deritzogu Galderaren lehen bi puntuak erantzun berean biltzeari.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako aurrekontu-kontusaileko 30400-0 lerroaren kargura, 323.216.222 pezetako zenbateko osoa duten laguntzak eman eta ordaindu dira, honako kontzeptu hauetan xehatuta:

Soldatak.....	90.407.527
Gizarte Segurantza ( Gizarte Segurantzako kuoten bonifikazioa) .....	140.290.370
Aurrekontu Defizita .....	88.301.823
Laguntza Teknikoa .....	4.216.502
Guztira .....	323.216.222

3.- Aipaturiko aurrekontu-kontusailaren hasierako erabilgarritasuna 710.000.000 pezetakoa zen; erabaki eta ordainduriko 323.216.222 pezetak kendu ondoren, une honetan 1997an kudeatzeke geratzen den saldoa lortzen da.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 29a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat.

## Tutera eta Nafarroako mugaren tartean, Tarazonako norabidean, N-121 errepidea hobetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tutera eta Nafarroako mugaren tartean, Tarazonako norabidean, N-121 errepidea hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Tutera eta Tarazonaren artean N-121-C errepidean aurreikusitako jarduketari buruz Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Gobernuak aurreikusi al duen Tutera eta Monteagudoko udalen eskaerari jaramon egitea, N-121 errepidea hobetzeko.

1998an Tutera eta probintziako mugaren artean N-121-C errepidearen bidezoruaren egokitze eta sendotzeari ekitea aurreikusten da.

2.- Aipaturiko N-121 errepideak N-232 errepidearen gainetik igarotzean egiten duen korapiloari ekiteko asmorik ote duen, hantxe taxutu den zerbitzu-poligonoarekin nahastu egiten baita, sarturitenetarako beharrianak dituenz gero.

Une honetan Tuterako saihebidetaren (N-232) destolestapenaren trazatuaren eta dagozkion lotuenean proiektua lantzen ari dira.

Departamentuak landuriko Errepideen Plan Zuzentzailean aurreikusten dira lanak.

3.- N-121 errepidearen Tutera eta Monteagudo bitarteko zatian txirrindularientzako biderik sartzeko asmorik ote duen.

Ez da halakorik aurreikusten.

4.- Zer epetan ekin nahi zaien aipaturiko obra eta hobekuntzei.

N-121-Cko bidezoruaren egokitze- eta sendotze-lanak 1998an egitea aurreikusten da.

Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 4a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak: José Ignacio Palacios Zuasti

## **Toki entitateekiko euskararen normalkuntzarako hitzarmen berrituari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Toki entitateekiko euskararen normalkuntzarako hitzarmen berrituari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Hizkuntza-normalizaziorako planari buruz Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak eginiko galderari ihardetsiz, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak zera azaltzen du:

1.- Proposamenak egin dituzten udalerrriak martxoaren 26ko 105/1997 Foru Aginduko 1. puntuan agertzen dira.

2.- Aipaturiko Foru Aginduaren eranskinean ezarritakoarekin bat, akordioak ukitzen dituen toki-entitate guztiek egoki den forman eta epe barruan igorri dute galdaturiko urteroko Hizkuntza Normalizaziorako Programa.

3.- Udal plan eta jarduketa-eremu bakoitzaren dako Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren finantzaketen kopuruak aipaturiko Foru Aginduko eranskinaren 9. puntuan agertzen dira.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 15a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Beste elkarte batzuetako pertsonen arreta egiteko Insaludekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak Beste elkarte batzuetako pertsonen arreta egiteko Insaludekin izenpeturiko hitzarmenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 5eko 31. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Fermín Ciáurriz Gómez, Askotarikoak-Eusko-Alkartasuna Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak beste Erkidego batzuetako pertsonen arreta egiteak zer kostu dakarren eta hori Nafarroako Gobernuak nola berreskuratzen

duen galdetu duela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

INSALUDEkiko hitzarmenak, beste Erkidegoetako pertsonen arreta egiteko:

Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du inolako hitzarmenik INSALUDEkin beste Erkidegoetako pertsonen osasun-laguntzarik emateko.

Larrialdien arretarako oraintsu Errioxarekin elkarrekotasunean oinarriturik izapidatu den hitzarmena, Parlamentuak aztertu duena, formalizatzeke dago.

Azken bost urteotako kostu banakatua:

Ez ditugu datu horiek.

Azken bost urteotan arreta egin zaien gaisoen kopurua, eta baita zer zentrotan egon diren ere:

Ez ditugu datu horiek.

Nafarroako ospitale-sarekoetatik at, besteren bat sartu al da? Zeintzuk?

Nafarroako ospitale-sare ofizialean Foru Administrazioarenak besterik ez daude sartuta, bere ondarekoak direlako. Honako hauek dira: Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjinaren Ospitalea, Ubarmin Klinika, García Orcoyen Ospitalea eta Reina Sofía Ospitalea.

Hauetz gain, laguntza-arrazoiengatik eta espezialitate, teknologia eta patologia zehatzetarako erabilpenari dagozkion baliabideak aprobetxatze-arren, badaude laguntza-kontzertuak, bi erakunde pribaturekin sinaturikoak: Nafarroako Unibertsitate Klinika (Nafarroako Unibertsitatearen jabetzakoa) eta San Juan de Dios Ospitalea (izen bereko Ospitale Ordenaren jabetzakoa).

Aurrekoek Administrazioari egotzi dizkioten kostuak baldin badaude, zeintzuk eta zer kontzepturen arabera?

#### SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA

	OSPITALERATUAK KOPURUA PZTA.		ANBULATORIOAK KOPURUA PZTA.		GUZTIRA PZTA.	FAK. OSOAREN GAINEKO %
1995	-	-	1	282.685	282.685	0,002
1996	1	62.970	1	287.305	350.275	0,003
1997						
(urtarrila-martxo)	24	6.742.600	33	262.078	7.004.678	0,025
Guztira		6.805.570		832.068	7.637.638	0,038

#### NAFARROAKO UNIBERTSITATE KLINIKA

	OSPITALERATUAK KOPURUA PZTA.		ANBULATORIOAK KOPURUA PZTA.		GUZTIRA PZTA.	FAK. OSOAREN GAINEKO %
1995	6	7.352.672	5	155.166	7.507.838	0,054
1996	8	6.414.605	10	287.879	6.702.484	0,051
1997						
(urtarrila-martxo)	3	408.379	6	90.459	498.838	0,014
Guztira		14.175.656		533.504	14.709.160	0,048

Nafarroako Administrazioak ba al du arreta horren berri? Nola?

Kontzertaturiko zentroetan egindako arretaren berri fakturazioaren bitartez ukan izan da beti. Ezagutza hori gastu-lerro haundietan oinarriturikoa izan da, 1994an ezarritako software informatiko oso bat martxan jarri arte; horrek fakturazioa-

Sare ofizialekoak ez diren baliabide hauen erabilera Administrazioari fakturatzen dioten kontzertuek sortzen dioten gastuari buruz galdegiten dela uste dugu. Horrela, ba, beste Erkidegoetako pertsoneri emandako laguntzari dagozkion gastu fakturatuek bi alderdi dituzte: beste Erkidegoetakoak izanik, Foru Komunitatean bizi eta laguntzarako eskubidea aitortua daukatenei emandako laguntza, eta, bestalde, beste Erkidegoetakoak izanik, foru lurraldeko laguntzarako eskubidea aitorturik ez dutenak, eta honek ekarritako gastua, sortzekotan, eskubide hori aitortzen dien osasun-zerbitzuak (autonomikoa zein INSALUDen ardurapekoa) ordainduko du. Galdera bigarren alderdi honi buruzkoa dela ulertu dugu.

Honela, ba, gastua sortzen duten kontzeptuak bi motatakoak dira: ospitaleratze-gastuak eta kontsulta anbulatorioarenak. Gastu horien zenbatekoak hauexek dira:

ren banakatze oso bat eskaintzen du, hilabetero ikuskatzen dena.

Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 9a.

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto



## Olagueko saihebidia eraikitzeko proiektuaren ingurugiro-eraginaren gaineko azterketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Olagueko saihebidia eraikitzeko proiektuaren ingurugiro-eraginaren gaineko azterketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Olagueko saihebidia eraikitzeko proiektuaren ingurugiro-eraginaren gaineko azterketari buruz José Javier Sánchez, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Jaunak eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Jendaurrera zabaltzeko ezarritako legezko epean aipatu Ingurugiro Eraginari buruzko Azterketari alegaziorik aurkeztu al zitzaion? Baiezkoan, alegazio horietako bakoitzaren deskribapen laburra eskatzen da; baita horietako alegazioaren batean esaten zena edo horren parte bat aintzat hartu ote den, eta baiezkoan, zein.

Jendaurrera zabaltzeko ezarritako legezko epean Ingurugiro Eraginaren gaineko Azterketari buruzko inolako alegaziorik ez da jaso.

2.- Zenbat Aukera aztertu zen orain Nafarroako Gobernuak onetsi duen trazadura definitzeko? Zer abantaila eta eragozpen zuen horietako bakoitzak, dela ingurugiroaren ikuspegitik, dela ikuspegi teknikitik? Zein izan zen azkenik hautatu zen Aukera?

Lau aukera aztertu ziren:

– 1. Aukera: Egungo errepidearen ezkerreko aldetik, mendian zeharreko tunel bat eraikiz. Soluzio honen eragina izugarria zen, tokiko ekonomiarantz interesekoak ziren zelaiak hondakindegira hartuko baitziren, soberan geratzen zen industriako materialaren kopuru handia zela-eta. Gainera, eraikuntzaren aldetik irtenbide konplexua da, eta, ekonomikoki, garestiena.

– 2. Aukera: Proposamen hau Olagueko ezkerreko aldetik ere pasatzen zen, mendia sasitunel batekin zeharkatuz. Honek zekarren ingurugiro-eragina zuhaitz hostogalkorren baso natural bat deuseztatzeagatik eta sasitunelak faila batekin topo egiteak sortzen zuen ezegonkortasunagatik gertatzen zen.

– 3. Aukera: Trazadura herriaren eskuineko aldetik zihoan, herria eta baselizaren artean, etxebizitzetatik oso hurbil. Jendeak ez zuen aukera hau onartzen, herrira zarata eta kutsadura ekartzen zituelako eta herria eta bere inguruen artean eten bat sortzen zuelako. Gainera, luraren kontentsazio oso txarra zuen trazadura bat zen.

– 4. Aukera: Hauxe da hautatutako trazadura. Herriaren eskuineko aldetik pasatzen da, baselizaren ekialdetik, eta, beraz, herritik urrunago pasatzen da 3. aukera baino. Balio ekologiko bereziko zonarik ez du zeharkatzen, eraginak oso txikiak izatea ahalbidetzen duten zuzenketa-neurriak aplikatzea posible egiten du eta azkenik hautaturikoa da.

3.- Zeintzuk dira hautatu den aukerak dituen ingurugiro-eragin nagusiak? Zer zuzentzeko neurri erantsi zaio proiektuari aipatu eragin horiek saihestu edo zuzentzeko?

Hautaturiko aukera, bere zatirik handienez, bazkaleku diren lur-sailetatik pasatzen da, eta, proiektuko hasierako eta amaierako zatietan, errepideak gaur egun duen trazaduraren gainetik. Ingurugiroaren ikuspegitik arreta berezia behar duten zonak eta jadanik hainbat neurri prebentibo aplikatu zaizkienak honako hauek dira:

– I. Zatia, 18+000 pk-tik 19+340 pk-raino: hemen, egungo errepidea Mediano ibaiarekiko paralelo doa, eta hura zabaltzeak ibaiertzeko basoa kaltetu lezake. Oinplanoko trazatua doitu egin da, eta horma bat aurreikusi da, lubeta-erazondari eta ibaiertzeko basoari inolako kalterik ez eragiteko.

– II. Zatia, 19+340 pk-tik 19+700 pk-raino doana. Mediano ibaia eta hurbil dagoen baso bat, nagusiki haritz, pago, haltz eta lizarrez osatua, zeharkatzen ditu zati honek. Eraginak txikiak izan daitezten, lubetan alboetako hormak eraikiko dira.

– III. Zatia, 20+480 pk-tik 20+570 pk-raino, harizti baten ondotik igarotzen da. Okupaziorik txi-



kiena eragiteko asmoz, trazadura doitu egin da, eta 20+480 pk-an (Etxaideko Jaurerriko dorrea) harri-lubetzako horma bat aurreikusi da .

– IV. Zatia, 26+800 pk-tik 26+900 pk-raino: han-hemenka taxu ederreko ehun urtetik gorako haritzak dituzten zelaiak zeharkatzen ditu. Zona honetako altxaketa topografikoan haritz bakoitza adierazi da, eta trazatua horietako bi bakarrik ukitzeko moduan diseinatua izan da.

Neurri prebentibo eta zuzentzaileak:

– Lanetan zehar sorturiko hautsa kontrolatzea, aldizkako ureztapenen bidez, beharrezkoa ez den materiala pilatzea eragotziz, garraio kontrolatua eta abar.

– Landarez edo ildo-bizkarrez osaturiko hots-pantailak paratuz zarata murriztea.

– Metaketa bidez okupaturiko lursailen azalera-horizontea erreserbatzea, ondoren landaredia leheneratzeko erabili ahal izan dadin, eta soildu beharrezko zona minimizatzea, batez ere ahalmen agrologiko altuko lurzoruei dagokienez.

– Lurrerauzketa-ezpondak ezartzea eta haien ertzak birmoldatzea, erliebea leuntzeko.

– Ibaiaren uharkari dagokionez, eraikuntza-fasean zehar kalteturiko azpiko aldea eta ertzak leheneratzea, uraren abiadura moteltzea drenatze-obren ondorioz arindu baldin bada, kalteturiko ertzen higadura kontrolatzea eta landaredia leheneratzea.

– Landaredia leheneratzea. Neurri hau garrantzitsuena da, ingurune hainbat elementu ukitzen dituelako, landaredia, azalaldeko urak, erliebea, paisaia eta fauna kasu. Hori guztia dela-eta, jarduketarik garrantzitsuena da, hala eraikuntza-fasean nola ustiapenekoan, eta haren azterketak Neurri Zuzentzaileen Proiektuaren zati haundi bat hartzen du.

– Hegazti, ugaztun eta arrain espezie ezberdinen ugalketa-aldiak gogoan eduki, haiengan ahal den eraginik txikiena izaten saiatzeko.

– Dauden bideak egokitzea eta, beharrezkoa izanik, berriak egitea, finketarako sarbidea hobetzeko, bai aziendarentzat bai jabeentzat, bide nagusia erabil dadila ekidinez. Donejakue Bidearen adar berdea leheneratu eta hobetzea.

– Lanak bukatutakoan, ingurua garbitzea, eraikuntza-materialak kenduz.

4.- Zer dermio eta tokitan daude Olagueko saihebidia eraikitze beharrezkoak diren materialak erauzteko erabiliko diren harrobiak?

Olagueko Saihebidia eraikitze beharrezkoak diren materialak erauzteko harrobien kokapenari buruz ez da ezer aurreikusi.

Obrako materialen zatirik haundiena hartuko duten lubetak Saihebidearen trazadurarako egin behar diren indusketez baliatuko direla aurreikusten da.

Birrinketa-materialak beste zonetako instalazioetatik ekarri beharko dira, ez baitirudi trazaduraren indusketatik behar den kalitateko materialik lortuko denik.

5.- Lurra mugitzetik material-soberakin bada, eta lehengo galderan esaten zen modu berean: zertarako erabiliko dira material-soberakin horiek?

I. Zatian 80.000 m<sup>3</sup> inguruko edukiera duen hondakindegia bat behar da, eta 17+960 pk-ren parean dagoen abandonaturiko harrobi batean kokatuko da; baita ere, 17+900 pk-an errepidearen mailaren azpitik dauden zelai batzuk beteko dira.

II. Zatian 50.000 m<sup>3</sup> inguruko soberakin bat dago; hau, zaratatik babestuko duten lurrezko ildo-bizkarrak egiteko eta lubetak lurraldearen kontramaldetan osatzeko erabiliko da. Hondakin-degi gehigarri bat behar izatekotan, lehen aipaturiko harrobia erabiliko litzateke.

III. Zatiak 155.000 m<sup>3</sup>-ko soberakina dauka, partzialki IV. Zatiako defizitarekin (75.000 m<sup>3</sup>-koa) orekatu ahal izango litzatekeena. Dena den, soberakina gaur egun Belateko obretarako erabiltzen ari den hondakindegian kokatuko da; honek beharrezkoa dena baino haundiagoa ere den edukiera du.

6.- Asmorik al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Belateko Tuneleko Obretan materialak garraiatzeko edo eta zabortejira eramateko ezarri diren azpiegiturak erabiltzeko, aintzat harturik obra horiek orain ari direla burutzen aipatzen ari garen saihebidia horren inguruetan?

Bai. III. Zatiak 155.000 m<sup>3</sup>-ko soberakina dauka, partzialki IV. Zatiako defizitarekin (75.000 m<sup>3</sup>-koa) orekatu ahal izango litzatekeena. Dena den, soberakina gaur egun Belateko obretarako erabiltzen ari den hondakindegian kokatuko da; honek beharrezkoa dena baino haundiagoa ere den edukiera du.

7.- Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak txostenik eman al du Ingurugiro Eraginari buruzko Azterketaren gainean? Zer nolakoa?

Bai. Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak, 1996ko ekainaren 11n egindako bileran, Ingurugiro Eraginari buruzko Azterketaren gaineko txostena eman du.

Txostena aldekoa izan da.

8.- Egin al zuen Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak inolako iradokizunik Olagueko saihesbidea eraikitzeak zeukan ingurugiro-eraginari buruz? Horietakoren bat aintzat hartua izan al zen Ingurugiro Eraginari buruzko Azterketan?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan dagoen espedientean ez da konstarazi Olagueko Saihesbidea eraikitzearen ingurugiro-eraginari buruz Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak egindako inolako iradokizunik. Espediente hori Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak izapidatu, laburbildu eta onartu du behin betirako.

9.- Proiektuan aurreikusten diren obrek ukitzen dituzten ubide guztiak leheneratzea eta birjartzea aurreikusi al da Eraikuntza Proiektuan?

Bai. Eraikuntza Proiektuak obrek ukitzen dituzten ubide guztiak leheneratzea eta birjartzea aurreikusten du.

10.- Proiektatu direnetako fabrika-obraren batek kaltetzen al du, nolabait ere, izokinen migrazioa? Baiezkoan, zer egingo da aipatu migrazio hori ez kaltetzeko?

Bai. Ezaugarri hauek dituzten ubideak kalteztzen baldin badira, ur horiek Olagueko Saihesbidean zehar bideratzen dituzten fabrika-obrek badituzte zenbait baliabide zera lortzeko:

- Maldak gutxitzea.
- Abiadura moteltzea.
- Zati luzeetan argia sartzeta.

11.- Olagueko Saihesbideko Proiektuak aurreikusten al du jarduketaren bat Olagueko Santa Maria Baseliza eta Etxaideko Gazteluaren inguruan izango diren eraginak leheneratzeko?

Bai. Olagueko Saihesbideak puntu hauetan izango dituen eraginak leheneratzeko jarduketak honetan dautza:

- Landaketak.
- Ikusizko oztopoak.
- Landa-itxitura bidez hesiak jartzea.

12.- Aipatzen ari garen proiektuak biltzen dituen obrek ukitzen al dituzte, zuzen edo zeharka ( instalazioak, maileguak, zaborteziak, sartzeko pistak...) zuhaitz-masei eusten dieten lurrak?

Baiezkoan, esan ukitutako aldea zein den, eragina sorrarazten duen obra zein den, Oihan-hegal-diaren deskribapen laburra eta ukitutako azalera.

Bai. Zera erantsi da:

- Ukituriko landaredi-masen ezaugarrien deskripzioa.

- 1:5000 eskaladun oinplanoa ukituriko mota bakoitzeko lursailen kokapena eta ezaugarriak adierazten dituena.

Ukituriko lurrazala 4,5 hektareatakoa dela jotzen da.

13.- Zer espezie sartzeta aurreikusten du Olagueko Saihesbidea Eraikitze Proiektuak azalera hauek berriz zuhaitzez estaltzeko? Esleipena duen enpresak egingo ditu lan hauek edo beste Organismo zein Erakunde batek egingo al du?

Inguruan lehenagotik zeuden espezieak erabilteza aurreikusten da Landaredia leheneratzeko; zehazki: Cupressocyparis Leylandii, Fraxinus Excelsior, Tilia Tormentosa, Quercus Robur, Sorbus Domestica, Salix Atrocineria, Salix Purpurea, Corylus Avellana, Quercus Pubescens, Prunus Mahales, Robinia Pseudoacacia, Pinus Sylvestris, Acer Campestre, Crataegus Monogyna, Cotoneaster Danmeri, Cotoneaster Salicifolia, Acer Pseudoplatanus, Acer Platanoides, Lonicera Etrusca, Perclymenum, Hedera Helix eta Betula Verrucosa.

Landaredia leheneratzeko lanen kontratazioa errepidearen beraren lanei loturik gabe egitea aurreikusi da; hau dela-eta, errepidearen obraren esleipendun den enpresa eta beste lan hauek egiteaz arduratuko dena berbera ez direla izango aurreikus daiteke.

14.- Olagueko Saihesbidea Eraikitzearen ondorioz etor litezkeen ingurugiro-eragin guztiak zuzentzeko aurreikusten diren jarduketan aurrekontu orokorrak zenbat jotzen du? Proiektuaren Aurrekontuetan propio sartu diren gastuek, transferituko direnek edo eta Jarduketan Proiektuan zenbatetsi ez direnek zenbat jotzen duten jakin nahi da.

Olagueko Saihesbidea Eraikitzearen ondorioz etor litezkeen ingurugiro-eraginak zuzentzeko aurreikusten diren jarduketan Aurrekontu Orokorra honakoa da, eskatu den bezala banakatua:

- Eraikuntza Proiektua	117.067.000,-*
- Zuzenketa Neurrien Proiektua	21.445.522,-
Guztira	138.512.722,-

\*Igurikatua

15.- Azkenik: Ingurugiro-eraginak zuzentzeko jarduketak Kontrata bidez Burutzeko Aurrekon-

tuak aipatzen ari garen Proiektua Kontrata bidez Burutzeko Aurrekontuaren ehuneko zenbat egiten du?

Igurikatzen den 138.512.722 pezetako kopurua, alegia, ingurugiro-eraginak zuzentzeko jarduketan guztirakoari dagokion hori, kontrata bidez burutzekoa (errepidea gehi neurri zuzentzaileak) eta 1.270.897.478 pezetakoa den aurrekontu orokorraren % 10,90a da.

Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 6a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

## Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean izandako elkarrizketei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean izandako elkarrizketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Diputazio Orokorrak Iruñea-Jaca-Huesca ardatzaren gainean, bertan elkarrekin jarduteko asmoz, izandako elkarrizketei buruz Miguel Ángel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak egindako galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Zer-nolako kontaktu eduki ditu Nafarroako Gobernuak Aragoiko Diputazio Orokorrarekin?

Nafarroako Gobernuak, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren bidez, lan-bilerak eduki ditu Aragoiko Diputazio Orokorreko Lurraldearen Antolamendu, Herrilan eta Garraio Departamentuarekin, honako data hauetan: 1996ko martxoaren 4an (Zaragozan), 1996ko maiatzaren 21ean (Iruñean) eta 1997ko maiatzaren 15ean (Zaragozan).

Bilera horietan Estatuko Errepideen Aragoiko Mugapeko ordezkariak ere parte hartu dute.

Bilera guztietako gai nagusia Iruñea-Jaca-Huesca korridorearen azterketa bateratua izan da.

2.- Aipatutako ituna zein terminotan doa proposatzera?

Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hitzarmen-zirriborro bat prestatu du, honako izenburu hau duena:

“Ebroko Ibarretik Iparraldeko korridoreak, N-330 eta N-121-en artekoak, alderatzeko azterketa (Iruñea-Jaca-Huesca)” izena duen Aurretiazko Azterketa egiteko Lankidetzaren Hitzarmena Aragoiko Diputazio Orokorra, Nafarroako Gobernuak eta Sustapen Ministerioaren artean.

Bere azalpenean, Hitzarmen-zirriborro horrek baieztatu eta justifikatu egiten du aipaturiko azterketa egiteko beharra, eta, bere zati ebazlean, zera ezartzen du:

1.- Azterketa Nafarroa eta Aragoiko Autonomi Erkidegoetara hedatzen da.

2.- Azterketak Aurretiazko Azterketaren izaera edukiko du.

3.- Azterketa honako premisatik abiatuz egingo da: alegia, lotura-bide bat dela (Azpiegituren Plan Zuzentzaileak definitzen duen bezalaxe).

4.- Hiru korridore definitzen dira:

– Iruñea-Puente la Reina (Huesca).

– Puente la Reina-Riglos-Huesca.

– Puente la Reina-Jaca-Sabiñánigo-Huesca.

5.- Azterketaren kontratazioa Sustapen Ministerioko Errepideen Zuzendaritza Nagusiak egingo du.

6.- Azterketaren burutzea jarraitzeko Batzorde bat eratuko da, honako hauek osatua:

– Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari bat.

– Aragoiko Diputazio Orokorak izendaturiko bi batzordekide.

– Nafarroako Gobernuak izendaturiko bi batzordekide.

– Aragoiko Errepideen Mugapeko Injineru Burua.

– Nafarroako Gobernuko Bide Zerbitzuko Injineru Burua.

7.- Errepideen Zuzendaritza Nagusiak hautatutakoa izendatuko da Azterketaren Zuzendari.

8.- Azterketaren kostua honela ordainduko da:

– Sustapen Ministerioak ..... % 60a.

– Nafarroako Gobernuak ..... % 30a.

– Aragoiko Diputazio Orokorak .....% 10a.

Aipaturiko Hitzarmen Zirriborroa beste bi Administrazioekin (Errepideen Zuzendaritza Nagusia eta Aragoiko Diputazio Orokorra) izapidatzeke eta adosteke dago; beraz, lehen deskribaturiko norainokoa eta xedapenetan aldaketak egon daitezke.

3.- Aurreikusitako berehalako jarduketak burutzeko ba al dago prestatutako egutegirik?

Aipaturiko Hitzarmen Zirriborroan aurreikusten denez, Aurretiatzko Azterketa 1998ko abenduaren 31rako amaitua egongo da.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 11

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## "Cobra 97" izeneko ariketa militarrei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak "Cobra 97" izeneko ariketa militarreiburuz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Cobra 97 izeneko ariketa militarrei buruz Jaime Iribarren Iriarte, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Jaunak egindako galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak:

1.- Zein udalerrri ukituko dituzte Cobra 97 deituriko maniobra militarrek?

2.- Ukitutako eremuan honelako ekintzek sortzen dituzten kalteak eta gaitzespen zabala ikusirik, maniobra hauek egiteko baimenak emateko, kontutan hartu al ditu Departamentuak mugimendu hauetan parte hartuko duten militarren kopurua, unitate-motak, ibilgailuak eta pertsonak zehaztuz? Departamentuak datu hauek izanez gero erantzunarekin batera eman ditzala.

3.- Zenbat jardunalde izango dira eta noiz arte egongo dira mugaturik edo erabilera militarrek ukiturik?

Maniobra militarrek burutzea Estatuko Administrazioaren eskumen eskusiboko gaia da.

Dauden berri bakarrak idatzizko prentsan irakurri ahal izan direnak dira.

4.- Nolako neurri zehatzak hartuko ditu nafar exekutiboak maniobra hauen aurrean?

Ezein jarduketa ez da egoki, goragoko puntuetan adierazitakoarengatik.

5.- Egia al da Nafarroako Diputazioak Zizurreko Zendeian dagoen Francoandia soroa, edo

honen zati bat, utzi duela maniobra hauek egin daitezen?

6.- Honela bada, ondare foralaren soro publikoak maniobra militarrek egiteko uztea Exekutibo nafarraren ohiko jokabidea izanen da aurrerantzean?

Ez.

7.- Nafarroako Gobernuak ba al du Erreniega mendikatea ez militarizatzeko eskatu duten inguruko biztanleen borondate argia errespetatzeko asmorik?

8.- Erreniegako mendikatea Iruñerriko arauen aurrerapenean parke komarkala izatea aurreikusuten dela hartu al da kontutan?

9.- Udalek eskatu eta Erreniegako Parke Eolikoaren plangintzan aurreikusten den bezala, Departamentuak martxan jarri al du Erreniegan nolabaiteko babes auzar dezakeen azterketarik edo proiekturik?

Nafarroako Gobernuak indarrengo Plangintza errespetatzen du eta errespetatuko du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 9a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Juduei buruzko Tuterako Jardunaldiak egitearen gaineko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Juduei buruzko Jardunaldiak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Tuteran Juduei buruzko Jardunaldiak antolatzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko lankidetzaren hitzarmenari buruz Martín Landa Marco Foru Parlamentari Jaunak eginiko galderari ihardetsiz, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak zera azaltzen du:

1.- Egia da, eta aitortu beharra dago, Tuterako Udala izan zela 1981ean Ikasketa Sefardiei buruzko lehen Astea antolatu zuena, Ikerketa Zientifiko-erako Goi Kontseiluko Arias Montano Institutuaren eta Madrilgo Judu Erkidegoaren lankidetzarekin. Ekimen honek hiriko kultura-munduko hainbat pertsona ospetsuren lankidetzaren erantzun zela. Baita ikerketa-beka batzuen sorkuntzarako laguntza eman zuten Nafarroako Gobernuaren ere. Jarduera noizean noiz burutu zen, eta 1987an behin betirako amaitu zen. Hau dela-eta,

Gobernuak, Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, Juduei buruzko Jardunaldiak antolatu zituen 1994an, juduherriak Nafarroan utzi zuen kultura-ondarearen ikerketa, ezagutza eta berriematea sustatzeko asmoz. Une horretatik aurrera, programa honek historialarientzat eta kultura judutarraren ikertzaileentzat eztabaidarako eta topaketarako gune izatea bilatzen du. Baita ere, Tuterak kultura-identitateko zeinu bereizgarriak gara ditzan lagundu nahi da, judaismoarekin duen lotura historikoa dela-eta.

Sortuak izan ziren unetik, Juduei buruzko Jardunaldiak bi arloren inguruan eratuta geratu ziren: bata zientifikoa, eta bestea dibulgaziozkoa. Programaren alderdi zientifikoa txostenetan eta jardunaldietako akten argitalpenean gauzatzen da. Dibulgazio-izaerako jarduerak batez ere kultura-ondare sefardiaren berri ematera eta, bereziki, Tuterako hiriaren iragan historikoa ezagutzera bideratu dira.

Arlo horietako bakoitzeko publiko desberdina da. Jardunaldi zientifikoak unibertsitate-eremura daude zuzenduta, eta bertako protagonistak ikasleak, ikertzaileak, irakasleak eta abar dira. Jardunaldi zientifikoek Unibertsitatearen aholkularitza teknikoa galdatzen dute, euren planteamendua eta egitura dela-eta.

Bestalde, dibulgazio-izaerako jarduera osagarriak bereizi gabeko publiko bati zuzentzen zaizkio; lehentasunez, Tuterakoari. Pentsa daitekeen



bezala, jarduera hauek ez dute Unibertsitatearen aholkularitza teknikoak galdatzen.

Juduei buruzko Jardunaldien hasieratik, oso argi geratu zen bere sustatzaileentzat beharrezkoa zela bi mailatan laguntzea: unibertsitateari dagokionez, programaren eduki zientifikoak definitu eta taxutzeko, eta Tuterako Udalari dagokionez, jarduera osagarriak garatzeko. Honela egin da lan 1994tik jardunaldien bi edizioetan. 1994an, Kultura Zuzendaritza Nagusiak izaera zientifikoko jardunaldien osagarri izango ziren jardueren programa bat garatzeko lehen lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen Tuterako Udalarekin. Eta aurten, 1997an, Juduei buruzko Jardunaldietako Batzorde Zientifikoa eratu den arte, NUPeko katedradun den Juan Carrasco Pérez jaunaren aholkularitza teknikoak eduki da.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artean sinaturiko lankidetzaz hitzarmena jardunaldietan izaera zientifikoa duten alderdietara mugatzen da erabat, Batzorde zientifikoaren izendapena, baliozkotze akademikoa, programaren eduki zientifikoaren taxutzea eta txostenen argitalpena kasu. Horregatik bereizi dira programan Unibertsitateak eta Departamentuak dituzten eskumenak.

Hitzarmen hau, bere norainokoa eta edukia direla-eta, Unibertsitateari eta Nafarroako Gobernuari soilik dagokiela uste izan dugu, eta horrela esan izan zaio beti Tuterako Udalari. Hala ere, Tuterako Udala ez da erabat baztertua geratu, Castel Ruiz-eko kultura-arloko Zuzendaritza Batzorde Zientifikoko kide baita, idazkari gisa.

Beraz, Udalak eta Vianako Printzea Erakundeak-Kultura Zuzendaritza Nagusiak sinatuko duten hitzarmenean zehaztuko da Juduei buruzko Jardunaldien antolaketan Tuterako Udalak izango duen zeregina, jardunaldiak egiten diren urte bakoitzean bezala. Hitzarmen honen gaia programaren antolaketara orokorrerako lankidetzaz da, eta, bereziki, jarduera osagarri eta dibulgaziozkoen antolaketarakoa.

2.- Tuterako Udala hitzarmen honetan alderdi beharrezkoa ez kontsideratzeko arrazoi nagusia hitzarmenaren edukia bera da, zeina, jadanik

esan bezala, programaren eduki zientifikoarekin zerikusia duten antolaketaz alderdietara mugatzen baita.

Tuterako Udalarekin hitzez itundurikoa, eta ondoren lankidetzaz hitzarmen egokietan gauzatu, jarduera osagarri eta dibulgaziozkoen antolaketaz izan da.

3.- Nafarroako Gobernuak du programaren antolaketaren erantzukizuna, eta horrela konstante da NUPekin sinaturiko akordioan. Lankidetzaz hitzarmen honen gaia NUPek jardunaldietako alderdi zientifikoei dagokienez dituen eskumen eta obligazioen zehazpena izanik, inor baztertua izan dela esateari ez deritzogu egoki. Aitzitik, partehartze bat lortu da, unibertsitate-erakunde batean, honela Juduei buruzko Jardunaldien izaera akademikoa ziurtatuz.

NUPekin lankidetzaz hitzarmen hau sinatu zen arte, Juduei buruzko Jardunaldiak antolatzeko sinaturik zegoen hitzarmen bakarra Tuterako Udalarekin eginikoa zen. Honetatik ondoriozta daitezkeenez, Tuterako Udala baztertua ez izateaz gain, lankidetzaz-eremua zabaldu egin da NUPak programarekin bat egitean.

4.- Printzipioz, Nafarroako Gobernuak ez du asmorik Tuterako Udala hitzarmen honetan sar dadin proposatzeko, hitzarmenaren gaiak ez baitu hori ezinbesteko egiten. Dena den, eta neurri txikiagoan bada ere, Batzorde Zientifikoaren osaketan Udala badago nolabait ordezkatua. Batzorde Zientifikoaren idazkari-eginkizuna Castel Ruiz-eko kultura-arloko Zuzendariaren eskuetan jarri du Unibertsitateak.

5.- Jarraipen Batzordea osatzeko, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Departamentuko bertako bi funtzionario izendatzea proposatu du. Eta bidezkoa dirudi hala izatea, hitzarmeneko baldintza-sortaren aplikazioaren arabera harturiko erabakiek nagusiki Departamentuaren ardurapekoak diren alderdiak, antolaketa eta ekonomiari buruzkoak, ukituko dituztelako.

Iruñea, 1997ko ekainaren 6a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatiari dagokion kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina Foru Diputazioaren erantzuna Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatiari dagokion kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan N-1 errepidearen zatian Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak gastatzea aurreikusten duen kopuruari buruz Adolfo Araiz Flamarique, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- 1997ko indarreango ekitaldiari dagokion aurrekontuko kontusailetik, zer kantitate gastatzea du aurreikusia Departamentuak N-1 errepidean Altsasutik Gipuzkoarekiko mugaraino doan zatian?

1997an 25 milioi pezeta gastatzea dago aurreikusia, Altsasu eta Gipuzkoarekiko mugaren artean N-1a destolesteko proiektua egiteagatik eman beharreko ordainsari gisa.

2.- Ba al du Departamentuak aurrean bertan zati horretako destolesterako proiektu teknikoa eskatzeko asmorik, bereziki Etxegarateko mendateari dagokiona? Dagoeneko existitzen baldin bada, zer irtenbide tekniko proposatzen den, eta zer fase administratibotan aurkitzen den lanen esleipen edo egitearen izapidetzea.

Altsasuko Saihesbidearen 2. Fasearen destolestea eraikitzeke proiektua landuta dago jadanik, eta Altsasutik Etxegaraterainoko destolestearen trazaduraren proiektua prestatzen ari dira.

Trazadura berriko Autobia gisa ari dira lantzen, gaur egungo N-1a zerbitzu-bide funtzioarekin gel-

dituz inguruetako instalazio eta jarduera guztiatarako.

Obligaziozkoa den Ingurugiro Eraginari buruzko Deklaraziorako beharrezkoak diren alternatibak aztertzeari ekin zaio.

3.- Zer kontaktu, eta zer nolako emaitzarekin, izan ditu Gipuzkoako Aldundiarekin aipatutako mendatea destolesteko?

Errepideen arloan bi alderdientzat interes amankomunekoak diren gaiak tratatzeko, erakunde-mailako bilerak egon dira. Gai horietako bat lurralde bietan N-1a destolestea da. Dena den, bakar-bakarrik informazio-trukeak egon dira, eta ez da jarduketa bateratu edo koordinaturako inolako konpromisorik hartu.

4.- Aipatutako errepide-zatiaren problemak konpontzeko gipuzkoar erakundearekin bitariko batzorde bat eratzeke asmorik ba al du Departamentuak?

Gaur egun ez da aurreikusten bitariko batzorderik eratzea.

5.- Datozen aurrekontu-ekitaldietarako, zer nolako aurrekontu-esleipen aurreikusten du Departamentuak aipatutako destolestearantz?

Onesteke dagoen 1998-2005 epeko Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileak jasotzen dituen jarduketan artean, honako inbertsio-egutegia aurreikusten da Altsasu eta Etxegarate artean N-1a destolesteko:

1999 .....	400.000.000 pta.
2000 .....	800.000.000 pta.
2001 .....	800.000.000 pta.
2002 .....	800.000.000 pta.
2003 .....	700.000.000 pta.
2004 .....	600.000.000 pta.
Guztira .....	4.100.000.000 pta.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 11

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti



## Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruz Miguel Ángel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak:

1.- Neurri hau Administrazio Epaitegiaren funtzionamendu egokirako aski dela uste al du?

Nafarroako Administrazio Auzitegia bi plazarekin haunditzea premiazko neurri bat da, ohiko

espediente-metaketa ikusiz. Neurri hori egokia zen, baina ez da nahikoa Auzitegiaren funtzionamendu azkar bat lortzeko, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko gaur egungo arduradunak jasotako multzoa kontutan hartuz.

2.- Aurkeztutako errekurtsioak aurkezten direnetik sei hilabeteko epean ebatzi ahal izateko jarduketa-plangintzaren bat aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak?

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak Jarduketa-plan baterako proposamena jaso du atzoko datarekin, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren kideek egina, eta hurrengo asteetan balortuko da, Auzitegi horretan aurkezten diren errekurtsioen problema endemikoari irtenbide bat aurkitzeko asmoz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 10a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## 31160-0 “Azterlanak eta proiektuak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Azterlanak eta proiektuak kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 31160-0 Ierroa, Azterlanak eta Proiektuak?

13.125.850 pezeta hitzartu dira, osoki maiatzeko hilabete honen amaieran ordainduko direnak, honako kontzeptu hauen pean:

- Nafarroan Gizarte Zerbitzuen Lehen Mailako Arreta Berrantolatze Planoaren aurreproiektua egiteko Lankidetzaren Hitzarmena NUPekin, 8.126.350 pezetako zenbatekoa duena.

- Lankidetzaren hitzarmena NUPekin, Nafarroan gizarte-bazterketaren problemak dituen ezaugarrien gainean azterketa bat burutzeko eta Familia eta Komunitate arloan oinarritako errentarako programa ikertu eta aztertze proiektu bat lantzeko. Zenbatekoa: 4.999.500 pezeta.

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aurreko erantzuna errepikatzen dut.

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

18.874.150 pezetako kreditu erabilgarri bat dago.

Egoki diren ondorioetarako bidaltzen dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## 99008-7 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazi asmorik gabeko entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 99008-7 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazi asmorik gabeko entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazi asmorik gabeko entitateentzat aurrekontu-kontusailari buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 99008-7 Ierroa, Hirugarren adineko

zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, irabazi asmorik gabeko entitateentzat?

108.854.368 pezeta hitzartu dira; hauetatik 92.313.900 pezeta ordaindu dira eta ordaintzeke gelditu dira gainerako 16.540.468 pezetak, honako kontzeptu hauen artean banatuta:

- Buñuel: San Gregorio Egoitzarako ekipamendua: 2.247.000 pezetako emakida (ordaintzeke).

- Cascante: Nuestra Sra. del Rosario Egoitzan erreformak: 8.332.500 pezeta emakidatu eta ordaindu dira.

- Tafalla: San Manuel eta San Severino Egoitzarako ekipamendua: 2.563.461 pezeta emakidatu eta ordaindu dira.

- Tuterako: Erruki Etxeko Egoitzan erreformak egitea eta Eguneko Zentroa sortzea: 10.258.194 pezetako emakida (ordaintzeke).

- Tuterako: Nuestra Sra. de Gracia Egoitza (Miguel Eza Fundazioa) erreformatzeko obrak: 81.417.939 pezeta emakidatu eta ordainduta.

- Alesbes: Virgen del Portal Egoitza erreformatzeko obrak: 4.035.274 pezetako emakida (ordaintzeke).

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aurreko erantzuna errepikatzen dut.

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

241.145.632 pezetako kreditu erabilgarri bat dago.

Egoki diren ondorioetarako bidaltzen dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## 31180-5 “Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 31180-5 “Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioei buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 31180-5 lerroa, Haur eta gazteentzako zentro berekietako inbertsioak?

Chalet Argaray zentroa birmoldatzeko obretarako, 13.987.116 pezeta hitzartu eta ordaindu dira. Horietatik, 711.814 pezeta teknikarien ordainsariei dagozkie, eta 13.275.275 pezeta obra-ziurtapenei.

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aurreko erantzuna errepikatzen dut.

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

117.778.884 pezetako kreditu erabilgarri bat dago.

Egoki diren ondorioetarako bidaltzen dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## 99005-2 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 99005-2 “Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Hirugarren adineko zentroetan inbertsioak egiteko Toki Entitateentzako Transferentziak kontusailari, 99005-2 lerroari buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 99005-2 lerroa, Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak egiteko transferentziak, toki-entitateentzat?

18.138.843 pezeta hitzartu dira. Horietatik, 5.298.500 pezeta ordaindu dira, eta gainerako 12.840.343 pezetak ordaintzeke geratu dira, honako kontzeptu hauen artean banatuta:

- Añorbe: Zentro Hiritar baterako eta Gizarte Zerbitzuetarako Zentro baterako 10.500.000 pezeta emakidatuta. Horietatik, 3.500.000 pezeta ordaindu dira; gainerakoa ordaintzeke dago.

- Arguedas: Jubilatuen Klubean hainbat erreforma txiki egiteko, 1.777.143 pezeta emakidatuta (ordaintzeke).

- Beriain: Jubilatuen Klubean hainbat erreforma txiki egiteko, 585.000 pezeta emakidatuta eta ordainduta.

- Corella: San José Zaharren Egoitzaren ekipamendurako 1.213.500 pezeta emakidatuta eta ordainduta.

- Tafalla: Nuestra Sra. de la Caridad Zaharren Egoitzan hainbat erreforma txiki egiteko, 3.263.200 pezeta emakidatuta (ordaintzeke).

- Alesbes: Virgen del Portal Zaharren Egoitzaren ekipamendurako 800.000 pezeta emakidatuta.

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aurreko erantzuna errepikatzen dut.

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Erabil daitekeena 176.861.157 pezetatan geratu da.

Egoki diren ondorioetarako bidaltzen dut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak: Calixto Ayesa Dianda

## 31210-0 “El Vergel egoitzako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 31210-0 “El Vergel egoitzako inbertsioak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

El Vergel Egoitzako inbertsioei buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean:

1.- Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 31210-0 lerroa, El Vergel egoitzako inbertsioak?

36.113.109 pezeta hitzartu dira, eta horietatik 3.887.064 pezeta ordaindu dira, honako kontzeptu hauetarako:

- Eguneko Zentro bat sortzea: 3.604.889 peze-ta ordaindu dira obra-ziurtapenengatik eta 282.175 pezeta obra-zuzendaritzaren ordainsariengatik.

- Lehen txalet bat zen lokal bat birmoldatzea, Egoitzaren barrutian, egoitza-erabilerarako egokitzeko: obrak maiatzaren 23an esleitu dira, 32.226.045 pezetako zenbatekoarekin.

2.- Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aurreko erantzuna errepikatzen dut.

3.- Zenbat erabil daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Erabil daitekeen kopurua 101.386.891 pezeta-koa da.

Egoki diren ondorioetarako bidaltzen dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak: Calixto Ayesa Dianda

## Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren zati bati buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren zati bati buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 14a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Altsasutik igarotzen den Altzania ibaiaren kalte-rikiko zati bati buruz Begoña Errazti Esnal, Askotarikoak-Eusko Alkartasuna Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak idatziz erantzun dakizkion eginiko galderak direla-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Espedienterik ireki al da gai honi buruz? Baiezkoan, horri buruzko orokortasunak.

Ireki egin da espedientea, Altzania ibaiko arrai-  
nen heriotza eragin zuen kausa zein den argitzea-

rreren. Horretarako, Foruzaingoaren Babes Ekologikoaren Atalak eginiko txostena, ibaiko uraren laginen analisiaren emaitzak eta Altsasu/Alsasua-ko ura edangarri bihurtzeko plantaren jarduera-txostena ditugu.

2.- Zeri ekin dio Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro Departamentuaren bitartez, egintzok argitu ahal izateko?

Orain arte buruturiko ekintzak ondokoak dira:

- Maiatzaren 9ko 11etan SOS Nafarroaren ohararazpena jaso ondoren, Foruzaingoaren Babes Ekologikoaren Ataleko patruila batek kalteuriko ingurua ikuskatu egin zuen, eta Altzania ibaiko uraren lagin batzuk hartu zituen, hala nola hildako arrain-ale batzuk.

- Baita ere, eta ia aldi berean, Ingurugiroko zainketa-pertsonalak kalteturiko ibai-zatia miatu zuen.

- Foruzaingoak harturiko ibaiko uraren laginak laborategian analizatu dira.

- Hildako hainbat arrain bidali da Zaragozako Unibertsitateko Albaitaritza Fakultatera, autopsia egin diezaieten.

- Altsasu/Alsasua-ko ura edangarri bihurtzeko plantaren jarduerari buruzko informazioa eskatu zaio Sakanako Mankomunitateari, haren titular gisa dihardu-eta, Altsasu-Alsasuako udalak oraindik lagapena formalizatu ez badu ere. Gasteizko TYTSA enpresak egin du jarduera-txostena. Enpresa hau, hain zuzen ere, plantaren ustiapenez arduratzen hasia zen, Sakanako Mankomunitatearen enkarguz.

3.- Zer ondorio atera du Ingurugiro Departamentuak Gurelur Taldeak bidali zizkion ur-laginetarik?

Gurelur Taldeak ez dio Nafarroako Gobernuari ezein laginik bidali, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskura ibaiko uraren laginak dituela jakinarazi badu ere. Berauek eskatzea ez da egoki jo, Foruzaingoak harturiko antzeko laginak eskura bai baitaude.

4.- Ingurugiro Departamentuak ba al daki kaltea zerk eragin duen?

Arrainen heriotza eragin zuen kausari buruzko azalpen begibistako eta eztabaidaekin ez dago. Dauden datuak hauexek dira:

– Ingurua ikuskatu zuten Foruzainek lisibarena bezalakoa (sic) zen usain sendo bat nabaritu zuten.

– Ibai-uraren laginen analisiaren emaitzek, batetik, baztertu egiten dute jatorri organikoko kutsadura egotea (granjetako purinak edo siloetako isuriak, adibidez) eta, bestetik, analitikoki ia detekta ezin daitekeen guztizko kloro-maila oso baxu bat agertzen dute, nolahi ere ubide publiko bateko azaleko urak izan ohi ez duena.

– Hornitu beharreko uraren kloroztatzearekin aurreko egunetan problemak izan zituela onartu zuen TYTSA enpresak, baina ukatu egiten du Altzania ibaira asko kloroztaturiko ura edo hipokloritorik isuri zenik.

5.- Nor edo zer da kaltearen egilea (lantegia...)?

Une honetan kaltearen egile materiala nor den zehazten ahalbidetzen duen froga eztabaidaekin ez dago, zantziek heriotza Altzania ibaira produktu toxikoren bat isuri izanak eta, zehazkiago, Altsasu/Alsasuako ura edangarri bihurtzeko plantak bere funtzionamenduan edukitako hainbat problemak eragin zutela pentsarazten badute ere.

6.- Zer erantzukizun aurreikusi du Departamentuak ibai ekosistemari egindako kaltearen balizko egilearentzat?

Arau-hauste administratibo baten egileari dagokion erantzukizuna indarreango araudian dago zehaztua, eta zehapen ekonomiko bat ezezik, kalteordain bat ere aurreikusten da, baldin eta sorturiko kalteak ekonomikoki zenbagarriak badira.

Horretarako, hasitako informazio-espedituek gertakizun, kausa eta efektuei, hala nola egileari buruzko ondorio nabarietara gidatu behar du. Baldintza hauek beteko balira bakarrik irekiko litzateke erantzulearen aurkako zehapen-espedituea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 10a.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.



## **“Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 14a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Martín Landa Marco Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra parlamentari taldeko kideak Ingurugiro hezkuntzarako proiektuetarako deialdia kentzeari buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1. Ingurugiro hezkuntza programetzako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduketarako dirulaguntzak izeneko kontusailaren, 11090-7 lerroaren burutze maila. 15 milioi pezetako zuzkidura du.

Ingurugiro Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren 1997rako gastuen aurrekontuan kontusail bat badago Ingurugiro heziketa programendako eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jarduerendako dirulaguntzak izeneko eta 15 milioi pezetako zuzkidura duena.

Ondokoa da haren betetze-maila:

a) Betetakoa: 175.710 pezeta, Gurelurri 1996ko ekitaldiari zegokion dirulaguntzatik gelditzen zena ordaintzeko. Diru hori ez zitzaion ordaindu aurreko ekitaldian administrazio-akats batengatik.

b) Hitzartutakoa:

– 11.992.785 pezeta. Zenbateko horrek 1997 urtean eskolaz kanpoko ingurugirorako sentsibilizazio eta hezkuntza ekintzei dirulaguntzak emateko deialdian aurkeztutako eskaerei erantzuteko balioko du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu

eta Etxebizitza Kontseilariaren martxoaren 13ko 237/1997 Foru Aginduan xedatu zen bezala.

– 2.831.505 pezeta. Zenbateko hori konprometitua dago 1996ko azaroaren 25eko Nafarroako Gobernuaren Erabakiaz. Erabaki hartan urteanitzeko gastu bat onetsi zen dirulaguntzen deialdia egiteko, Nafarroako ikastetxeetan 1996-1997 ikasturtean ingurugiro-hezkuntzako jarduerak burutu zitezten.

2. Zer arrazoi dago Ingurugiro Departamentuak ezezkoa emateko, Ingurugiro hezkuntza proiektuak kentzeko, alegia, Beriango Ikastetxe Publikoari jakinarazi zaion bezala?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez dio inongo ikastetxeri jakinarazi ingurugiroari buruzko hezkuntza proiektuak kendu behar direnik.

Aitzitik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuari jakinarazi dio ez dagoela 1997. urtean inongo aurrekontu erabilgarritasunik bi urteko deialdi berri baten (1997-1998) konpromisoei erantzuna eman ahal izateko, izan ere deialdi hori zorduntzen zen kontusailak 1996ko Aurrekontuan baino 6 milioi pezeta gutxiago baititu aurtengoan.

3. Gaizki ulerturen bat balitz, eta deialdia kendu ordez, atzeratzea pentsatu bada, zer eperako aurreikusten da eta noiz erabili ahal izango da aipatu aurrekontu lerroa, ikastetxeek euren jarduketak aurreikusi ahal izateko?

Hamar urte baino gehiago dira Gobernuak ekimen bat bultzatu zuela Nafarroako ikastetxeetan ingurugiro-hezkuntzako jarduerak burutzeko dirulaguntza deialdia egiteko. Ingurugiro Departamentuak egoki ikusi zuen orduan ikasleekin ingurugiro-hezkuntzako ekintzak bultzatzea, bestela ez baitzen horrelakorik egiten hezkuntza arloko jendearen ekimenez.

Urte hauetan guztietan egindako lanaren balantzea oso aldekoa izan da, noski, eta dirulaguntza horri esker bestela burutuko ez ziren esperientzia interesgarriak bideratu ahal izan dira.

Dena den, Espainian azken urteetan egin den hezkuntzako erreformak ekarri du hezkuntza-sisteman ingurugiro-hezkuntza sartzea. Izan ere,



LOGSE legeak ezarri zuen lehen hezkuntzak norberaren gorputzaren higiezia eta osasuna eta natura eta ingurugiroa zaintzearen beharra baloratzen lagunduko duela, beste helburu batzuen artean (13. art.). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak (DBH), bestalde, ezarri zuen lagun eginen duela ikasleengan ondoko ahalmenak garatu daitezten: gizarte egitateetan eragiten duten faktore nagusiak aztertzeak ahalmena; naturaren oinarriko legeak ezagutzeko, osasunarekin, kontsumoarekin eta ingurugiroarekin lotutako gizarte ohiturak kritikoki baloratzeko; ohitura horiek eragiten duten gizarte, natur eta kultur giroa ezagutzeko eta haiek hezkuntzarako tresna bezala erabiltzekoa (19. art.).

Izan ere, ingurugiro hezkuntza, hezkuntza-erreforma egin ondoren, zeharkako gai gisa hartzen da, osasuna, kontsumoa, giza eskubideak eta abar bezala. Lerro horien guztien azpian amankomuneko eredu bat dago baloreetan zentratutako hezkuntza integral baten oinarria eta, finean, pertsonaren jarrera aldaketa bat eragin beharko lukeena. Beraz, ingurugiro-hezkuntza askotan eman izan zaion natura-ikuspegia ere gainditzen duen kontua da.

Horrek guztiak esan nahi du ingurugiro hezkuntza ez dela bakarrik naturan jarduera batzuk burutzea edo ingurugiro-ekipamendu batzuetara bisita jakin batzuk programatzea, baizik eta ikasle bakoitzak bizi den mundua ulertzea eta bizi den tokiko ingurugiro-baliabideak modu eraginkorrean kudeatzen ikastea bilatzen duen hezkuntza-eredua hartzea suposatzen duela. Horrexegatik, ingurugiro hezkuntzak eskola-curriculumaren alde bat izan behar du ingurugiroaren kalitatea ulertu, zaindu eta hobetzeko gizarte-eskaerari erantzuteko.

Ingurugiro-hezkuntzaren arloan, Hezkuntza eta Kultura eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuen arteko lankidetzak akordioa garatzeko, nire Departamentuan,

eskola arloari dagokionez, ondoko gaiei eman nahi zaie lehentasuna:

– Departamentuak kudeatzen dituen ingurugiro hezkuntzako baliabideei ikastetxeek ematen dieten erabilera optimizatzea. Horretarako, hainbat foileto argitaratu dira Natura Interpretatzeko Zentron eta El Bordón Hegazti Behalekuaren eduki eta baliabideei buruz.

– Nafarroako Ingurugiroaren oraingo kudeaketaren eduki nagusiei buruzko material didaktikoak sortu eta argitaratzea. Hori dela eta, lehiaketa publiko bat egin da sei unitate didaktiko sortzeko.

– Irakasleei begira egindako prestakuntza ahaleginak zentratzea hezkuntzako langileek ezagutza gero eta zabalagoa izan dezaten gure Komunitatean gaur egiten den ingurugiroaren kudeaketari buruz.

– Gure Komunitatean naturaguneetatik hurbil dauden ikastetxeak haietara gehiago hurbildu eta haiek gehiago ezagutzea. Ingurugiroaren kudeaketa eta eskola elkarrengana hurbiltzeak bidea ematen du gure haurren hezkuntza aberasteko, ez bakarrik heitzeko baliabide gisa zuzenean erabiltzeagatik baizik eta baita ere aurrerapen bat suposatzen duelako gure gazteek ingurugiro baliabideen kudeaketan benetan parte har dezaten, orain eta etorkizunean.

Irizpide hauek guztiek eta baliabide publikoekin eraginkor izatera behartzen gaituzten aurrekontu murrizketek bidea eman zioten nire Departamentuari ikasleentzako ingurugiro hezkuntzarako gure lan-lerroei beste ikuspegi bat emateko ordua zela konturatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo.

## **Bizidun arrainak beitzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bizidun arrainak beitzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 14a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko kideak Bizidun arrainak beitzat erabiliz arrantzan aritzeko eta ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan urak arrainez hornitzeko aukerari buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Nafarroako Gobernuak egokitzen jotzen du urak arrainez hornitu ahal izatea, ziprinidoak harrapatzeko txapelketetan edo horietan parte hartzeko ariketetan?

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak 27.B (4. puntua) artikuluan ezarri zuen debekatuta dagoela arrain biziak beitzat erabiltzea baimenik gabe, bai eta urak arrainez hornitzea ere arrantza bitartean edo arrantza egin baino lehen, salbu eta ziprinidoak harrapatzeko kirol-txapelketetan edo txapelketa horietan parte hartzeko entrenamenduetan.

Uztailaren 4ko 157/1995 Foru Dekretuak, Nafarroako salmonidoen arrantza antolatzeke Plan Gidaria behin betiko onetsi zuenak, eranskina 3. puntua, mugak f) Beitzat izenekoa ezarri zuen arrain biziak zein hilak beitzat erabiltzea debekatuta zegoela, orokorrean.

Arrain bizia erabili izan da, gehien bat, amuarraina eta lutxo harrapatzeko; bi espezie horietako bakarra ere ez dago ziprinidoen talde taxonomikoan.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/1997 Foru Aginduak, 1997an Nafarroako arrantza arautuko duen berariazko arautegia ezarri zuenak, 8.c artikuluan ezarri zuen debekatuta dagoela arrain natural bizi zein hilak erabiltzea beitzat. Dena den jakitera ematen du arrain hilak erabili daitezkeela lutxo harrapatzeko, amuarrainetarako ur ez direnetan. Artikulu bereko d) puntuan zehazten du debekatuta dagoela urak arrainez hornitzea arrantza bitartean edo arrantza egin baino lehen, ez bada ziprinidoen txapelketetan edo heriotzarik gabeko arrantzan, amuarrainetarako ez diren tarteetan arrantzan ari diren arrantzale federatuen kasuetan.

Nafarroako Parlamentuaren nahia argi azaldu zen 2/1993 Foru Legean, bertan ezarri baitzen debekatuta zegoela arrain bizia erabiltzea beitzat, baina baimena ematen zen urak arrainez hornitzeko ziprinidoen arrantzako kirol-txapelketetan edo horietarako entrenamenduetan.

Nafarroako Gobernuaren nahia ere arestian aipatu diren Foru Dekretuan eta Foru Aginduan azaldu da argi, beti ere arrain bizia beitzat erabiltzea debekatuz. Izan ere, arrain hila ere beitzat erabili daiteke soilik amuarrainetarako ez diren uretan lutxo harrapatzeko edo amuarrainetarako barruti intentsiboetan, beti ere Nafarroan harrapatzeke baimenduta dauden espezie eta tamainen kasuetan eta arrantza egiten den barrutiko fauna-koak badira.

Debeku horiek arrazoitu daitezkeen oinarri tekniko bat dute. Departamentuan ditugun informazioen arabera, arrain bizia beitzat erabiltzeak etekin handiagoa ekartzen du tamaina handiko amuarrainak hartzen direlako, horiek izaki ugaltarako balio handia duten arrainak. Era berean, ibaiek duten fauna-kutxaduraren sortzaile garrantzitsuenetako bat dira, bertako arrain-faunaz beselako espezieak askatzen direlako modu horretan.

Ziprinidoak gaur azpiustiatua dagoen arrain talde bat dira, askoz ere gehiago erabili zitezkeena; Bizi-iraupen luzea dute eta ugaltzeko ahalmen handia. Horregatik guztiagatik, arrantza dela-eta ez dago inongo arriskurik haien iraupenerako, edozein dela ere erabiltzen den modua edo beita. Dena den, urak aurretiaz arrainez hornitzea,

zalantzarik batere gabe, arrainak harrapatzeko aukera neurri handi batean errazten duen jardue-  
ra da, eta horrexegatik Estatuko legeek (Naturgu-  
neak eta basa landaredia eta basa fauna zaintze-  
ari buruzko martxoaren 27ko 4/89 Legea) eta  
Nafarroaren berezko legeek jarduera hori ohiko  
izatea debekatzen dute. Ziprinidoen arrantza-  
lehiaketak heriotzarik gabeko arrantza eginez  
burutzen dira, dagokion Foru Aginduan ezarri zen  
bezala; hots, arrainak harrapatu ondoren bizirik  
bota behar dira uretara. Horrexegatik, lehiaketa  
horietan, urak arrainaz hornitzeak harrapaketen  
kopurua handitzen du, baina ez du ezertan uki-  
tzen arrainen populazio naturala.

2. Nafarroako Gobernuak aurkeztu al du, edo  
aurkezteko asmorik al du, aipatu epaiaren aurka-  
ko errekurtsoren bat, 2/1993 Foru Legearen eta  
Nafarroak arrantzan duen eskumen osoaren aur-  
kakoa delako?

Parlamentari galdera horrek aipatzen duen  
epaiaren oinarria Estatuko Administrazioak 1993-  
1994 ekitaldirako Arrantza-Debekuei buruzko  
Foru Legearen aurka jarri zuen errekurtsioan  
dago. Hartan ez da martxoaren 5eko 2/1993 Foru  
Legearen inongo aipamenik egiten, ez eta zalan-  
tzan jartzen ere, berariaz esateagatik, Nafarroak  
arrantzaren arloan duen eskumen eskusiboa.

Gainera, aintzat hartzen badugu helegindako  
Foru Aginduak aipatzen zuen arrantza-denboral-

dia iragan dela, ez du batere zentzurik helegite  
judizialekin aurrera jarraitzeak.

3. Nafarroako Gobernuak ba al du 2/1993 Foru  
Legearen aplikazioa Auzitegien aurrean defendan-  
tzeko asmorik, urak arrainez hornitu ahal izateari  
dagokionean, ziprinidoak harrapatzeko txapelke-  
tetan edo horietan parte hartzeko ariketetan,  
hurrengo arrantza aldirako debekuen foru agindua  
egokia emanez?

Nafarroako Gobernuak beti defenditzen du  
Nafarroako Parlamentuak onesten dituen legeen  
aplikazioa.

Gai jakin horretan, debekuei buruzko hurrenez  
hurreneko Foru Aginduek aintzakotzat hartu dute  
urak aurretiaz arrainez hornitzeko aukera ziprini-  
doen arrantza lehiaketetarako, salbuespen beza-  
la. Estatuko Administrazioak ez du beste helegite-  
rik jarri 2/1993 Foru Legeak ezarritakoaren  
babesean xedatu den horren aurka. Horregatik,  
une honetan ez dago batere arazorik justizia auzi-  
tegietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko  
Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-  
tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 10ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta  
Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

## Altzania ibaian arrain askoren heriotzari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan  
ezarritakoa betez José Javier Sánchez Turrillas  
Foru Parlamentari jaunak Altzania ibaian arrain  
askoren heriotzari buruz egindako galderaren  
erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren  
26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari  
Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 14a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Altzania ibaian gertaturiko arrain askoren  
heriotzari buruz José Javier Sánchez Turrillas,  
Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamen-

tari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz  
erantzun dakizkion eginiko galderak direla-eta,  
honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro,  
Lurraldearen antolamendu eta Etxebizitza Kon-  
tseilariak:

1.- Ingurugiro Departamentuak berririk izan al  
du Altzania ibaian, Altsasutik, esandako tokietatik  
diraganean, arrain ugari hil egin dela?

Bai, maiatzaren 9an ukan zen horren berri,  
SOS Nafarroak egindako ohartarazpenaren ondo-  
ren, goizeko 11etan.

2.- Ingurugiro Departamentuak aztertu al du  
gertakarien lekua? Hildako arrain ugari antzeman  
al da? Zer espezieri eragin dio kalteak eta zer  
kopururi, gutxi-gora-behera? Mehatxatutzat jotako  
espezieren bateko alerik hil al da?

Arrainen heriotza jasan zuen ibai-zatia maiztaren 9an ikuskatu zuten Ingurugiro Zainketarako Erronda Zentraleko kideek eta Foruzaingoaren Babes Ekologikoaren Ataleko patruila batek. Arrainen heriotza Ibarreako Presaren eta beheherago dagoen San Juaneko Presaren artean kokaturiko Altzania ibaiaren 400 metroko luzerako zati batean gertatu zen.

Egindako ikuskapenean arrain hil hauek jaso ziren:

- 15 amuarrain.
- 2 loina.
- Txipa bat.

Hauei, 500 bat arrainkume gehitu behar zaizkie, espezie ezberdinetakoak (barboa, amuarraina, mazkarra, loina, txipa), ibaian geratu zirenak, zailak baitziren jasotzen.

Kalteturiko espezieetatik bakar bat ere ez da mehatxatutzat hartzen, ez Katalogo Nazionalan, ezta Nafarroakoan ere.

3.- Ingurugiro Departamentuak ikertzeari ekin al dio arrainak hiltzearen arrazoia eta arduradunak, halakorik balitz, zeintzuk diren jakiteko?

Gaurdaino, arrain hauek hiltzearen kausa eta erantzuleak ikertzeko burutu diren jarduketak hauek izan dira:

– Babes Ekologikoaren Ataleko eta Ingurugiro Zainketarako pertsonalak kalteturiko zona ikuskatu du.

– Ibaiko uraren laginak jaso dira kalteturiko zonan, baita hildako arrainen hainbat ale ere.

– Foruzaingoak harturiko ibaiko uraren laginak laborategian analizatu dira.

– Hildako arrainen hainbat ale Zaragozako Unibertsitateko Albaitaritzako Fakultatera bidali dira, bertan horien autopsia egin dezaten.

– Sakanako Mankomunitateari informazioa eskatu zaio ura edangarri bihurtzeko Altsasuko plantak burutzen duen jarduerari buruz. Une honekin, Mankomunitate hori plantaren arduradun gisa ari da jarduten, Altsasuko Udalak lagapena oraindik formalizatu ez badu ere. Jarduera-txostena Gasteizko TYTSA enpresak egin du; enpresa hau hasi da, hain zuzen, plantaren ustiapenez arduratzen, Sakanako Mankomunitatearen enkarguz.

4.- Ingurugiro Departamentuak uste al du Justiziari gaztigatu behar zaiola gertatutakoa, ingurugiroaren aurkako delitu izan baitaiteke?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua gertakizunak, beren kausa posibleak, ondorioak eta balizko erantzuleak ari da aztertzen. Faktore guzti hauez behin betiko balorazio bat eduki bitartean, ez da beharrezkotzat jotzen egintza hauek Justiziari gaztigatzea.

Nolanahi ere, Altzania ibaian eta bere ekosisteman eragindako kalteak konponezinak dira. Baldintza normaletan, ibai honek bere onera itzultzeko behar adina berezko ahalmen dauka, gertaturikoa bezalako jazoera puntualak gainditu ahal izateko.

5.- Ingurugiro Departamentuak ba al du zehapen-espeditari ekiteko asmorik, arrain hilketa-  
ren errudunen aurka?

Ikerketa amaitu ondoren jakin ahal izango balitz hilketa-  
ren erruduna nor izan den, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zehapen-espeditaria irekiko luke.

6.- Zer neurri hartzeko asmoa du Ingurugiro Departamentuak salatutakoa bezalakorik gerta ez dadin? Zer neurri hartzeko asmoa du ibai-zati horretan arrain-fauna bereoneratzeko?

Potentzialki ur naturalen kalitatearen narriatzea edo ubideetan bizi den fauna edo florarentzat arrisku bat ekar lezaketen hondakin-urak (industriakoak, nekazaritzakoak zein bestelakoak) kontrolatu eta ikuskatzeko ahalmena mantentzea eta areagotzea, ahal den heinean

Kalteturiko ibai-zatia oso luzea ez denez gero, ibaiaren bilakaerari berari itxarongo zaio, bere kabuz bereoneratzeko. Beranduago beharrezko joko balitz, kalteturiko zatia birpopulatu egingo litzateke.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 10a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo